

“Ziklo-krosaren ideia plazaratzen nuen bakoitzean, lar ameslaria nintzela esaten zidaten”

Ander Azpitarte Agirregomezkorta
Garaiko Triatloi Taldea • 27



“Evo Moralesen boto-emailea izan naiz; gauza on asko egin du, baina 2016tik hona aldatu egin da”

Durangaldea | Juan Carlos Arcangel boliviarrak hiru urte daramatza Elorrión bizitzen, eta kezka bizi du bere herrialdeko egoera. • 4



Elkartasunez, bizi berri bat eraikiz

Euren burua jaioterritik alde egitera behartuta ikusi duten hiru familiak Zornotzan hartu dute aterpe. Bertako Harrera Taldeak baliabideak eta elkartasuna eskaintzen dizkie bizimodu autonomoan berreraikitzeko. • 2



Ezkontza gehigarria



NATURA GARA

ELORRIO

LOURDESKO AMA IKASTETXEA
www.lourdeskoama.eus 
94 682 00 56



eta gabonetako POTOLUE HEMEN jausten bada? **BERRIRO**

LOTERIA HIRU 

94 620 04 57
Loteria Hiru - Administrazioa Zb. 1
San Prudenzió 2 - MATIENA (Abadino)



Hainbat hilabeteen egindako lanak herritarren eta familien arteko elkartasuna sortu du.

“Asistentzialismoaren aurrean, elkartasuna lantzen dugu; familiak autonomo izatea da helburua”

Zornotzako Harrera Taldeak herrira bizitzera datozen familiei laguntzeko proiektua du esku artean. Gaur gaurkoz, elkartasuna eta autonomo izaten laguntzeko baliabideak eskaintzen dizkie 3 familiari. Bizimodu berri bat eraiki gura dute Zornotzan, eta umeak herriko hainbat ikastetxetan eskolatu dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Etxeko txirrina jo eta gutxira zabaldu du atea Fortunak. "Kaferik gura duzue?", galderagaz egin die ongiatorria Harrera Taldeko kideei. Beheko solairuko etxean ere, gauza bera. "Kaferik bai?". Lau familien abegikortasuna eta Harrera Taldeko kideen gertutasuna begi-bistakoak dira. Igartzen da haien arteko konplizitatea eta konfiantza giroa.

Elkarlan hori, baina, orain hile batzuk hasitako hartu-emanaren fruitu da. Euren jaioterritik alde egitera behartutako hiru familiak bat egin dute Zornotzan. Bertan hasi dira bizitzen. Eta, aurreantzean, bertan hasi gura dute bizimodu berri bat eraikitzen. Aterpea Harrera taldearen esku-

"Etortzen zirenen profila aldatzen ari zela ikusten genuen: familiak etortzen hasi ziren"

tik etorri da. Zornotzako herri mugimenduak Luis Urrengoetxea kalean okupatuta dituen etxebizitza bi ipini ditu familia berrien eskura, eta haiei behar duten guztian laguntzeko ahaleginak egiten ditu Harrera Taldeak. Talde horretako kideetariko batzuk dira Irati Aiesta, Ekaitz Aldana eta Olatz Talavera.

Orain urte bi eratu zuten Harrera Taldea, hain justu, munduko hainbat herritar Euskal Herrira aterpe bila etortzen hasi ziren garaian. "Etortzen zirenen profila aldatzen ari zela ikusten genuen. Umeak zituzten familia asko hasi ziren gure herrira etortzen. Emakume asko haurdun zeudela. Egoera zaurgarrian zeudela. Eta, horregatik, Bizkaia osoan sarezen hasi zen mugimenduan gure ekarpena egiten hasi ginen. Nagusiki, familiei laguntzeko mugimendua da gurea", dio Talaverak.

"Bakarrik joaten dira medikuarenera; ahalegintzen gara haiek autonomo izan daitezen laguntzen"

Familiak, erdigunean

Instituzioek gai honetan duten presuntasun falta betetzeko ahaleginak egiten ditu Zornotzako Harrera Taldeak. "Errealitatea da instituzioak ez daudela prest familiei erantzuteko. Aterpetxeekin gertatzen dena da familia unitateak apurtu egiten direla. Gizonezkoak gizonezkoen aldera joaten dira lo egitera. Emakumezkoak emakumezkoen aldera. Eta umeak guraso bien artean banatzea dakar horrek", azaldu du Talaverak. Ondorioz, familia apurketa horiek

umearen etorkizuna arriskuan ipini dezaketela diote. Familien eskue-tatik Foru Aldundiaren eskuetara pasatzeko arriskua legoke.

"Instalazio horiek ez daude familien egunerokotasunerako pentsatuta. Sartu eta irteteko ordutegiak daude. Ez dago espazio komunik umeekin jolasteko. Familiek

"Pobrezia ezin da familiak apurtzeko arrazoia izan"

beste beharrian batzuk dituzten erabiltzaileekin partekatu behar izaten dute eremua", dio Aiestak. Eta horretan sakondu du Aldanak ere: "Azken finean, familiek hor egoteko duten arrazoi bakarria pobrezia da. Baina pobrezia ezin da familiak apurtzeko arrazoia izan".

Familien autonomia helburu

Harrera Taldeak instituzioetatik aparte sortu du bere babes sarea. "Zelanbait esateko, asistentzialismotik ihes egin, eta horren aurrean elkartasuna lantzen dugu. Familiei baliabideak eskaintzea da helburua, gero, haiek, modu autonomoan funtzionatu dezaten", dio Aldanak. Ildo beretik egin du berba Aiestak: "Lehen, medikuarenera joaten laguntzen genien. Orain, bakarrik joaten dira. Ahalegintzen gara haiek autonomo izan daitezen laguntzen". "Bizitzako uneraren batean, denok dugu laguntasuna jasotzeko beharrezana", azpimarratu du Talaverak.

Egunerokotasuna

Fortunaren zaparroetariko bat zirikatatu du Aldanak. Olgetan hasi dira. Sofa gainean bueltaka ibili dira, barreka hasi arte. Gero, erosketa zerrenda txukuntzen hasi da Fortunagaz. "Ostras! Egia! Aurreko erosketan xaboa erostea ahaztu zitzaigun. Lasai, bihar ekarriko dizuegu xaboa", adostu dute. Ertz asko ditu eskaintzen duten laguntasunak. Izan daiteke laguntza juridikoa, hizkuntzari lotutakoa, edo egunerokotasunari lotutakoa.

Udala ere mugitu da

Harrera Taldearen lanak instituzioak mugitzen hastea ere ekarri du. Joan zen irailean, ordura arte indarrean zegoen erroldatze araudia aldatzea eskatu zion Harrera Taldeak udalari. Hainbat kidek eta familiak osoko bilkurara jo zuten, eta indarrean zegoen araudiak legea "urratzen" zuela azaldu zuten. Andoni Agirrebeitia alkateak gaia aztertzeke borondatea agertu zuen egun hartan bertan. Harrera Taldearen eskari hark utzi du aztarna; izan ere, udalak erroldatzeko araudia aldatu du, eta, orain, hiru familiak herrian erroldatuta daude.

"ETA ZU,... ZERGATIK ETORRI ZARA NIRE HERRIRA?" - Aurreiritziei aurre egiteko testigantzak

Zornotzara ailegatu diren familiek jaioterritik alde egitera behartuta ikusi dute euren burua: hiru istorio eta hamaika bizipen daude atzean



TALBI FAMILIA

Marokotik Euskal Herrira etorri, eta euskaraz hazi

Saifeddine (aita) Marokon langabezian gelditu zenean okertu ziren gauzak. Horri gehitu behar zaio herriko kaleetan erasoak zeudela, eta umeei "abusuak" egiteko arriskua zegoela. Bizimodu berri bat bilatzen hasi eta Euskal Herrira etorri ziren. Bazuten euskaldunon

berri. Zornotzan urtebete baino ez daramaten arren, euskaraz egiten du Ichraq alabak (15 urte). Bere neba Yahyak 5 urte ditu. Akademikoki familia jantzia da haiena. Fatima Zorhak, amak, zuzenbide ikasketak ditu, eta Saifeddinek, aitak, kontabilitate ikasketak.



FORTUNA ETA BERE FAMILIA

Albanian eta Alemanian ondutako kemena

Fortuna (ama) albaniarra da sortzez. 22-23 urtegar, Italian zegoela, mafia salatzeko ausardia izan zuen. Erabaki hark, baina, handik alde egin beharra eragin zion. Alemanian amaitu zuen, eta han ezagutu zuen bere egungo bikotekidea: Hicham. 7 hilabetean

Bilboko aterpetxean egon ziren. Zerbitzu sozialek haien umeak "kentzeko" prozedura hasi eta gero, Zornotzako Harrera Taldearen bitartekaritzari eskerrak, umeek eurekin segituko dute. Zornotzan haziko dira Ala, Ryan eta Malika Begoña umeak.



MOUSSAOUI FAMILIA

Umeen hezkuntzak bizilekua aldatzea dakarreanean

Aljeriako Oran hirikoak dira. Fatima Zohra amak eta Mourad aitak lau seme-alaba dituzte: Mohammed (5 urte), Lylia (3 urte), Chiraz (urte 1) eta Khalil jaioberria. Umeengan pentsatuta erabaki zuten bizimodu berri bat bilatzea. Izan ere, jaioterriko

kaleetan zeuden eraso beldur, eskolatu barik izaten zituzten umeak, etxean. Pateran egin zuten Aljeria eta Andaluzia arteko bidaia, urte hasieran. Bizkaiko hainbat herritan egon eta gero, Zornotzan bizitzen hasi dira. Umeak ikastolara joaten hasi dira.

Bizkargi taberna zegoen lekuan kafetegi sozial bat zabaldua, Zornotzako Harrera Taldeak herri osora zabalduko du elkartasuna

Kafetegi eta dastategi sozial bat izango da. Abenduan 'crowdfunding' kanpaina bat hasiko dute, lokala zabaldu ahal izateko behar den dirua batzeko

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Harrera Taldearen lana ez da familien etxebizitzetara mugatuko. Jadanik hasi dira igartzen gauzak aldatzen ari direla: familietako umeak herriko ikastetxeetan matrikulatuta daude, euskara ikasten ari dira, herritarren aurreiritziak aldatzen ari dira apurka-apurka. Eta, hortik tiraka, Harrera Taldeak proiektu berri bat garatuko du laster: Bizkargi taberna zegoen tokian kafetegi-dastategi sozial bat zabalduko du.

"Eskolan erraza da familiako kideekin hartu-emanetan ipintzea, baina kalean ere landu behar da hori", diote. Horregatik, lokala erabe-

rritzeko lanak martxan ipini, eta, etorkizunean, familien zein zornotzarren topaleku bat sortuko dute. "Bertan ekoizitako produktuekin osatuko dugu eskaintza, azken finean, gure kontsumo ohiturak ere badirelako migrazio eragile".

Lokalaren izen zaharra mantenduko dute. "Ideal positiboak ekartzen ditu gogora Bizkargi izenak. Beste mundu bat eraikitzearen alde gudukatu ziren bertan. Guk ere itxaropen hori islatu gura dugu", diote. Crowdfunding delakoa martxan ipini eta diru-bilketa hasiko dute, abenduan gutxi gorabehera. Bizkargi kafe degustazio soziala bilatu beharko da goteo.org atarian.



Irati Aiesta, Ekaitz Aldana eta Olatz Talavera dira Harrera Taldeko kideetarikoz batzuk.

“Semeek egunak daramatzate Bolivian eskolara joan barik, ikastetxe asko erre egin dituztelako”

Juan Carlos Arcangel Evo Moralesen boto-emailea izan da; gauza on asko egin duela dio, baina 2016tik hona aldatu egin dela



Juan Carlos Arcangel Mamani
Hiru urte daramatza Elorrión bizitzen
Bolivia | 1990

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO
Elorrioko eta Durangoko hainbat boliviar areto futboleko talde batean batu dira, Elorrión kuadrillentzat antolatatu duten txapelketan parte hartzeko. Bolivian bizi den egoera-

ren aurrean, kirolak barrua husteko balio die. Juan Carlos Arcangel da euren arteko bat. Kezkaz bizi ditu bere sorterriko gertareak, eta han bizi den egoerari buruz duen ikuspegia ematera animatu da.

Noiztik bizi zara Boliviatik kanpora?
Cochacamba hirikoa naiz eta orain hiru urte irten nintzen handik. Han irabazten nuen diruagaz zaila zen aurrera egitea. Emaztea, bost eta hiru urteko semeak, gurasoak,

anaia... Denak Bolivian bizi dira gaur egun.

Zelan bizi duzu zure sorterrian dauden egoera?

Bolivia horrela ikusteak min ematen dit. Herritarrek sufritzen ari dira, eta ez dute inongo errurik.

Zure emaztea eta semeak zelan daude?

Ondo daude, baina semeek egunak daramatzate eskolara joan barik, Moralesen aurkariak erre egin zituztelako eskola asko. Barazkien eta janariaren prezioak gora egin du nabarmen, ez delako produkturik heltzen. Nik bidaltzen diet dirua, baina zer erosirik ez badago...

Zer iruditzen zaizu Evo Moralesek egin duen lana presidente egon den urteetan?

Presidente ona izan da. Berari eman izan diot botoa hauteskundeetan. Pobrea den jende askori lagundu dio eta eskola asko eraiki ditu. Bere lehenengo hamar urteak oso onak izan dira, gauza on asko egin du, baina 2016tik hona aldatu egin dela

esango nuke. 2016ko erreferenduan, herritarrik gehienek konstituzioa ez aldatzea erabaki zuten, eta presidentearen berrautaketa gehiago ez luzatzea. Herritarrek erabakitako hori errespetatu egin behar zela uste dut.

Zure ustez, azken hauteskundeak garbiak izan dira?

Ez. Nire ustez, iruzurra egon da, Gutxienez duda asko eragiten dit. Baina gerora etorri dena estatu kolpe bat izan dela ere uste dut.

Presidente berriak, Jeanine Añezek, botoen %4 eskuratu zuen azken hauteskundeetan.

Ez da nire gustuko presidentea. Indigenak asko diskriminatzen dituen pertsona da.

Beste hauteskunde batzuk egiteak egoera baretu dezake?

Baietz uste dut, baina garbiak izan behar dira, sinesgarritasuna izan behar dute.

Noiz itzuliko zara Boliviara?

Paperak egin eta urte amaieran familia ikustera joango naiz. Ez dago eurak besarkatzea baino sentazio hobirik, Bolivia zein egoeratan dagoen kontuan hartuta batez ere.

Zerbait gehitu gura duzu?

Bakea gura dut Bolivarentzat. Gauzak baretu eta negozioak eta komertzioak berriro martxan ipini daitezela gura dut, horrek ematen diolako bizia herriari.

Amankomunazgoak 30 puntu gehiago ipiniko ditu hondakin organikoak batzeko

Orain arte martxan egon diren 75 bilketa puntuez gainera, beste 30 gehiago ipiniko dituzte laster



Gune urbanoetan ipiniko dituzte hondakin organikoak batzeko puntu berriak.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA
Hondakin organikoak sailkatzeko aukera herritarrei eskuragarriago ipintzea gura du Amankomunazgoak. Augusto Uriarte da hondakin bilketa arloko arduraduna, eta berak dioenez, "gaur egungo 75 batze puntuez gainera, beste 30 egongo dira laster". Mireia Elkoiribe Amankomunazgoko presidentea ere argitu duenez, plana "lizitazio fasean" dago, esleipenaren zain. Bizkaiko Foru Aldundiak

eskaintzen dituen diru-laguntza batzuk baliatuta garatuko dituzte hondakin organikoaren bilketa zabaltzeko asmoak.

Kamioi berriak, martxan

Amankomunazgoak kamioi berri bi erosi ditu zabor bilketaren zerbitzua "hobetu" eta "efizienteago" egiteko. Asteon ipini dituzte kamioiak lanean. Horiatariko bat ekartzera, 2006tik martxan zegoen bat erretiratu dute. Bigarrenak, 2008tik martxan zegoen bat ordezkatu du, baina orainoz ez dute zahar hori erretiratu, noizbait erabili behar balitz. Guztira, 537.000 euro inguruko inbertsioa egin dute.

Aurreko legegintzaldiko lantaldeak ipini zuen martxan kamioietan inbertitzeko prozesua.

Otxandioko duatloian batutako 500 euroak DYArri eman dizkiote

OTXANDIO • J.D.

Urri amaieran Otxandion lehiatutako duatloian, antolatzaileek diru bilketa bat egin zuten, ekitaldiari elkertasun ukitua emanda. Bertan batutako 500 euroak errepidean osasun laguntza ematen duen DYA gobernuz kanpoko erakundeari eman dizkiote. Diru-laguntza hori negu honetan kalean bizi diren pertsonen laguntzeko erabiliko dute, janaria eta arropak lortzeko, antolatzaileen esanetan.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko azaroaren 22a
18. urtea - 785. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarrri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.
Maketazioa: Bea Sierrasumaga Guezuraga, Nerea Azpiazu Beaskoetxea eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA


Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

azaroaren

28

10:00-12:00
18:00-20:00

PLATERUENA
Kafe Antzokian



Durangaldeko

Mintzodromoa

Parte hartzeko izena eman behar da Durangaldeko euskaltegietan edo telefono bidez (639 400 786) azaroaren 27a baino lehen.

etorri

parte hartu

hitz egin

Sustatzaileak

Babesleak

Berba 639 400 786
lagun
www.durangaldea.blogspot.com
durangaldea@aek.eus



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango



Euzko Lehiaketa
Bizkaia

praktikatu aek



Durangoko Udalak karkaben auziari heldu dio eta Alde Zaharreko bederatzi tabernari isuna ipini die

Jaietan karkaben erabilera mugak ez errespetatzeagatik ipini die isuna. Tabernariak zigorra errekurritzeko asmoa dutela diote

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Karkaben erabilera araututako espazioaren mugak pasatzeagatik, udalak isuna ipini die Alde Zaharreko hainbat tabernari. Bederatzi dira zigortutako tabernariak. 500etik 5.000 eurora bitartekoak izan daitezke isunak. San Fausto jaietan izan zen arau-haustea. "Jaien aurretik, karkaben espazio erabilera arautzen duen plano bat eman genien ostalariei, espazio mugak zeintzuk ziren azaltzen zituenak. Jaietan, ikuskaritza bat egin eta batzuek ez zituztela espazio mugak errespetatzen ikusi genuen. Abisua eman genien. Azkenean,

isunak etorri dira", azaldu du udal gobernu taldeko Aritz Bravok. "Argi dugu isunek ez dutela arazoa konponduko, eta tabernariekin batu gara, irtenbide bat lortu guran", gaineratu du.

Lan karga handiko egunetan, zenbait tabernari biltegi lez erabiltzen dituzte karkabak. Berez, ezin dira horretarako erabili, baina badira salbuespen datak: Durangoko jaiak, Goienkaleko jaiak eta Durangoko Azoka. Eta horietan ere badira arauak. Azoka atjoka dago eta tabernariak berriro aurre egin beharko diete lan karga handiko egunei.

Tabernarien kexa

Isuna jaso duten tabernariak kexu dira. "70 urtean jaso dudan lehenengo isuna da", dio batek. "Baimendu ziguten espazioa txikia da, ez da nahikoa darabilgun upel kantitatea biltegitratzeko. Gainera, jaien bezperan jaso nuen zeintzuk ziren espazio mugak. Ordurako, karkaban biltegitratuta nuen jeneroa. Isuna errekurritzeko bideak aztertuko ditugu", azaldu du.

Bizilagunen ikuspegia

DAZ Durangoko Alde Zaharra elkarteak "begi onez" ikusi du udalak hartutako bidea. "Auzi hau aspalditik dator, eta, orain, zezenari adarretatik heldu dio udalak", dio Josemari Arrillaga bozeramaileak. "Bizilagunen segurtasuna da jokoan dagoena", gaineratu du.

Bravoren esanetan, "orain arte ezikusia" egin zaio karkaben auziari. Orain, "bizilagunen kexak eta ostalarien beharrianak" entzun dituztela eta "bien arteko oreka bat topatzeko lanean" segituko dutela esan du, "betiere, legearen barruan".

Erabaki plataforma: "Orain hasten da galdeketa prozesua"

Tren geltokiaren galdeketa badu itauna. Galdera osoko bilkuran onartzea itxaroten dute. "4.000 durangarrek sinaduraren bitartez eskatutakoa martxan" ipiniko dela dio Ima Garrastatxuk



Erabaki plataformako eta gobernu taldeko kideek eguaztenean egin zuten agerraldia.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Erabaki plataformak eta Durangoko udal gobernu taldeak dagoeneko erabaki dute zein galdera egin gurako lieketen durangarrei tren geltokiari buruz erabakitzeko. Ima Garrastatxu alkateak adierazi duenez, "4.000 durangarrek sinaduraren bitartez eskatutakoa martxan ipini da asteon".

Datorren astean egitekoa den osoko bilkuran onartu gura dute galdera, behin betiko. "Aurreikuspenen arabera, onartuko dela" usate du Herriaren Eskubidea taldeko Jorge Varelak.

Gero, Madrilen eskuetara pasatuko da kontua. Ministroen kontseiluak hiru hilabete izango ditu

galdeketa baimendu edo prozesua atzera botatzeko. Onartuko balu, 9 hilabeteren buruan egin beharko litzateke galdeketa, gehienez.

Laura Gomez Erabakiko kidearen esanetan, "oraingo udal gobernu taldearen jarrerari eskerrak" aurrera egingo du galdeketa prozesuak. Aurreko gobernu taldearen "trabez" kexatu da. Garrastatxuk, bere partetik, "herritarrei berba" emateko asmoa berretsi du.

Galdera, onartzekotan, honakoa litzateke: "Ados al zaude PERI 1 TRENBIDEA proiektua bertan behera uzteaz eta prozesu parte-hartzaile bat izango duen alternatiba bideragarri baten azterketa martxan jartzearrekin?"



Udalak dioenez, bederatzi tabernari aurtengo Durangoko jaietan hautsi dute araua.

Termiten izurritea tratatzeko ordaindu beharreko tasa onartu du Elorrioko Udalak

Herrigune historikoan bizi diren herritarrek 69,50 euroko tasa ordaindu beharko dute 8 urteko tratamenduagatik

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko herriguneko termita izurritea tratatu eta horri amaiera emateko asmoz, Elorrioko Udalak tratamendu bat ipini du martxan. Prozesuak 8 urte iraungo du. Udalak tratamendu horren %30 bere gain hartuko du, eta gainerako %70a herrigune historikoko bizilagunek ordaindu beharko dute. Udalak jakinarazi duenez, herrigune historikoan bizi diren herritarrek 69,50 euroko tasa bakarrik ordainduko dute zerbitzu horregatik.

Bestalde, hiru hobarri mota egongo direla azaldu dute. Lehenengo %50eko hobarria izango da, 2009tik 2013ra bitartean

eraikinetan termiten kontrako tratamendua aplikatu zutenentzat. Bigarrena, %95ekoa, 2004tik 2019ra bitartean tratamendua ipini dutenentzat, eta hirugarrena, %50ekoa, zuzeko egitura ez duten eraikinetan bizi direnentzat.

"Termiten izurriteagaz arazo bat daukagu, eta hori osotasunean lantzea beharrezko ikusten genuen", adierazi zuen Idoia Buruaga alkateak azken osoko bilkuran. Bestalde, Mikel Arruabarrena EAJren bozeramaileak azaldu zuen tratamendua "gauza ona" dela Elorriorenentzat, eta etorkizunean baserri ere zerbitzua eskaintzea ona litzatekeela.



Joan den astean anbulatorio aurrean egindako kontzentrazioa.

Matienako pediatria zerbitzua normaltasunera itzuli da

Mikel Garaizabal alkatearen esanetan, zerbitzua "normaltasunera" itzuli da Osakidetzaen errefortzuekin

ABADIÑO • A.M.

Matienako osasun zentroko pediatria zerbitzua normaltasunera itzuli zen astelehenean. Osakidetza arduradunen eta Abadiño udal gobernu kideen artean egindako batzarrean horrela erabaki zela jakinarazi zuten joan

den barikuan. Azken asteetan egondako zerbitzu murrizketaren ondorioz, erabiltzaileek mobilizazioak egin zituzten joan den astelehenean eta eguaztenean. Dozenaka lagunek parte hartu zuten herritarrek sare sozialen bitartez deituriko protestetan.

Iurretako kofradiek ordezkari berriak aukeratuko dituzte hurrengo astean

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako sei kofradiek batzar orokorrak egingo dituzte datorren lau urteetako ordezkariak aukeratzeko. Aukeratuek kofradien kontuak eramateko ardura izango dute, eta auzoan sortzen diren premiei erantzuteko ardura ere bai, besteak beste. Azaroaren 29an, Amezketan eta Bakixako ermitan izango dira batzarrak, 18:30etan eta 20:00etan, hurrenez hurren. Azaroaren 30ean, Goiuriako ermitan eta Iurretako Aita San Migel plazan, 12:30etan eta 18:00etan, hurrenez hurren. Abenduaren 1ean, San Marko txokoan batuko dira, 11:00etan, eta Orozketako auzo eskolatan 13:00etan.

Haurreskolara doan bidearen irisgarritasuna hobetuko dute Iurretan

Iurretako Udalak 5,9 milioi euroko aurrekontua izango du 2020an, eta 810.000 euro inbertsioetarako gorde dituzte. EAJk eta PSE-EEK babestu dute aurrekontu proposamena



Udalak 170.000 euro erabiliko ditu Ibarretxe kultur etxetik haurreskolainoko bidea konpontzeko.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak datorren urterako udal aurrekontua onartu berri du: 5,9 milioi euro izango dituzte 2020an, eta inbertsio atalak 810.000 euro hartuko ditu. Ibarretxe kultur etxetik haurreskolara doan bidea egokitzeko eta irisgarritasuna hobetzeko gorde dute diru atalik potoloena: 170.000 euro. Bestalde, Bideba-

rrieta kalea eraberritzeko lanei heldu gura die udalak, eta 45.000 euro gorde dituzte egitasmoa idazteko. Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, "proiektu potoloa" da, eta herritarren parte-hartzeagaz landu gura dute.

EH Bilduk proposatuta, memoria historikoa lantzeko beka (40.000 euro) kaleratuko dute, eta udalak plazan dituen lokaletari-

ko bat konponduko dute, biltegi lez erabiltzeko. Hartara, elkar-teentzat lokal berriak ahalbidetu gura dituzte. PSE-EEK proposatuta, gizarteratze eta laneratze programagaz jarraituko dute. EAJk eta PSE-EEK babestu dituzte kontuak. Alkatearen berbetan, "zuhur" jardun dute, gastu arruntak ikusita. EH Bildu abstenitu egin da "zer hobetu badagoelako".

Hainbat genero batzen dituen antzezlanak ikusgai Mallabian

'Ovarios verdes fritos' obra eskainiko dute Kontzejuzarrean

MALLABIA • J.D.

Nahikari Mallabiko Emakumeen Elkartek *Ovarios verdes fritos* izeneko antzezlanak ekarriko du domeka honetan, 12:30ean, Kontzejuzarrean. Detritus Teatrus konpainiak 2013an sortutako antzezlanak hainbat genero uztartzen ditu: Kabareta, bakarrizketa eta kafe-teatroa, besteak beste. Belen Nevado da obrako zuzendaria eta aktore bakarra. Oraingo honetan, Mastur

Batetu Candida doktorearen pape-rean sartuko da Nevado. Ardurata dago emakumeen identitate galeragaz eta antzeko kontuekin, eta egitasmo kurioso bat ipiniko du martxan arazo horiei aurre egiteko, inor indiferente utziko ez duena. Ohi duen moduan, Nevadok emakumeen ahalduntzea bilatzen du antzezlan honetan, umorea eta ikuspuntu probokatzailerak oinarri hartuta.

700 bonu kaleratuko dituzte Zaldibarren, erosketak herrian egitera bultzatzeko


Abenduaren 2tik aurrera eskuratu daitezke bonuak

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

10 euroko balioa duen bonua erabilita, zaldibartarrek 20 euroko erosketak egin ditzakete herriko dendetan. Udalak 700 bonu ipiniko ditu salgai "herriko merkataritzari bultzada bat" emateko

helburuz. Liburutegian eta udal-txean bertan eskuratu daitezke, abenduaren 2tik aurrera.

Herriko 17 dendarik egin dute bat egitasmoagaz. Ekimenak "bultzada ikaragarria" ematen diela azaldu du merkatarietako batek.



Amorebieta-Etxanon sinesten dugu

Bat eginda gure herriaren garapenaren alde.

Ikusi zer egin dezakegun zuregatik eta zure herriarengatik creemosen.com/amorebietaetxano webgunean.

Publizitate-dokumentua

Nikolas Alzolaren olerki liburua aurkeztuko dute eguaztenean Izurtzako elizan

'Kantuz eta itxaropenez' izeneko liburuak Alzolaren 100 olerkitik gora jasotzen ditu, bere hainbat margolanegaz batera



Alzolaren margolanekin iaz osatutako erakusketaren inaugurazio ekitaldia, Durangoko Museoa.

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Nikolas Alzola Gerediaga (Izurtza, 1922-1981) euskal idazle eta margolariaren inguruko olerki liburua aurkeztuko dute eguaztenean, 19:30ean, Izurtzako Bariko San Nikolasen elizan. Antton Mari Aldekoa-Otalorak, Xabier Bovedak, Alberto Erraztik eta Sebastian Gartzia sortzaile izurtzarraren olerki-rik esanguratsuenak batu dituzte *Kantuz eta Itxaropenez* izeneko liburuan. Labayru fundazioari eskerrak ikusiko du argia, eta Durangoko Azokan egongo da salgai, Labayru-ren saltokian.

Aurkezpenean liburuko olerki batzuk irakurriko dituzte. Adolfo Arejita Labayru fundazioko zuzendari eta euskaltzainak Alzola nor zen hobeto ezagutzeko gakoak emango ditu, eta lurretako koruak abesti bana eskainiko du ekitaldian hasieran eta amaieran.

Alzolak idatzirik 100 poematik gora jasotzen ditu liburuak. Eurretan bere sasoiko gertakariak zein bere mundu ikuskera ditu berbagai.

"Alzolak gerra zibila eta gerraosteko urteak ezagutu zituen. Pasatutakoak pasatuta, etorkizunari itxaropenez begiratzen zion" azaldu du Antton Mari Aldekoa Otalorak liburuko izenburuari buruz. Gerrako fronte batean hil zitzaion osabari eskainitako hiru olerki ere jasotzen

“

Liburuak Labayru fundazioari eskerrak ikusiko du argia, eta Durangoko azokan egongo da salgai

dira. Alzolak bere bizitzan margotutako hainbat irudi ere jasotzen dira liburuan, hala nola Durangoko Etxezarreta jauregia, jaioleku izan zuen Izurtzako Etxaburudorre baserria eta Bilboko Miserikordiako lorategia.

lazkoari jarraipena emanez

Aurtengoa ez da Nikolas Alzolaren lanaren eta bizitzaren garrantzia nabarmentzeko egiten duten lehenengo ahalegina. Iaz, sasoi honetan, beste liburu bat aurkeztu zuten, *Mugarrapetik kontu kontari; Esku bete atal* izeneko, eta Alzolaren margolanekin erakusketa bat zabaldu zuten Durangoko Museoa.

Emakume lorezain bi kontratatuko bidea hasi dute Berrizko Udalean

Gaur egun langile finko bi eta errefortzuko bat daude lorezaintza lanak egiteko; orain, ostera, berdintasunaren bidean, emakume bi kontratatuko dituzte alderdi guztien aldeko botoari eskerrak

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteon, emakume lorezain bi kontratatuko bideari ekin diote Berrizen. Gaur egun, hiru gizon daude lantaldean; bi lanaldi osoan dabilta, eta hirugarrenak errefortzu lanak egiten ditu. Eguazteneko bilkuran Orlan Isoird alkateak esan zuenez, zerbitzua "txiki" gelditu da. Orain arte, langileek mozketak bi egiten zituzten urtean, eta dagoene-

ko hiru-lau mozketak egitera pasatu behar izan dira, besteak beste. Hori horrela, lanaldi osoako langile bat eta errefortzurako beste bat kontratatzea erabaki dute. "EH Bilduk emakumeen esku-hartzea bermatu behar zela proposatu zuen, eta lanaldi osoko langilea emakumea izan beharko litzatekeela. Gobernu taldekook begi onez ikusi genuen, eta errefortzuko langilea ere emakumea izatea proposatzen dugu", esan zuen Isoirdek.

Bestalde, langileak kontratatuta zerbitzua hobetzea itxaroten dutela eta beste arlo guztietan ere emakumearen presentzia bermatu beharko litzatekeela esan zuen Josu Albizuri EH Bilduren bozeramaileak.

Lorezaintzarako makineria berria eta auto elektriko bat ere erosiko dituztela esan zuten.

Lorezaintzarako makineria berria eta auto elektriko bat ere erosiko dituztela esan zuten.



Eguaztenean, aho batez onartu zuten emakume bi kontratatzea.



Arrazolako hilerriko argazkia.

Atxondoko hiru hilerrien irisgarritasuna hobetuko dute

Lan horiek egiteko, 30.000 euro inbertituko dituela jakitera eman du ohar baten bitartez Atxondoko Udalak

ATXONDO • IGOR GALARZA

Atxondoko Udalak, ohar baten bitartez, herriko hiru hilerrien irisgarritasuna hobetzeko lan egingo duela jakitera eman du. 30.000 euro inbertituko ditu lan horietarako. Xabier Azkarate Atxondoko alkateak esan duenez, Apatamonasterioko, Axpeko eta Arrazolako kanposantuek "irisgarritasun

txarra" dute, eta hori hobetzeko egingo dituzte obra horiek.

Proiektua urriko aurrekontu parte-hartzailearen bitartez eramango dute aurrera. Udalak jakinarazi duenez, 30 bat proposamen bildu zituzten, eta "banan-banan aztertu zuten proposamen bakoitza", udal gobernuaren esanetan.



Berrikuntzen ondoren, honako itxura hartuko luke Legarrebi auzoak, gutxi gorabehera.

Zornotzako Udalak urtarrilean hasi gura ditu Legarrebi auzoko lanak

Espaloiak handitu, arboladi berriak ipini eta argiztapena hobetuko dute, "lehenetasuna" oinezkoengan ipinita

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

San Juan kalean bertan eta San Juan kaleak Andrandi kaleagaz bat egiten duen puntuan hasiko dituzte lanak. Udalak bertako etxebizitzetarako sarbidea urbanizatuko du, "egoiliarak etxebizitzetara errazago sar daitezten, eta inguruak itxitura hobea izan dezan". Gaineratu du "gune atseginago bat"

sortu gura dutela, "lehenetasuna" oinezkoengan ipinita. Horretarako, espaloiak handitzeaz gainera, arboladi berriak ipini eta argiztapena ere hobetuko dute.

Proiektua lizitazio fasean dago. Lanak abenduan esleitzea gura du udalak; hartara, obrei urtarrilean ekiteko. Lanek, 573.000 euroko aurrekontua dute gutzira.

Mañariko udalbatzarrean aho batez onartu dituzte 2020ra begirako ordenantza fiskalak

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko udalbatzarrean 2020ra begirako ordenantza fiskalak onartu dituzte. Adostasuna egon da udalbatzarra osatzen duten alderdi bien artean, eta aho batez onartu dituzte. Zerga eta tasa batzuk mantendu eta beste batzuk igo egin

dituzte hurrengo urteari begira. Alde batetik, ekonomia-jardueren gaineko zerga 0,10 puntu igoko dute. Igoera hori Mañariko industrialdeak banatuta dauden zonalde bakoitzean aplikatuko dute. Horrez gainera, beste aldaketa bi nabarmendu daitezke. Alde batetik,

trakzioa duten ibilgailuen gaineko zergak %1,2ko igoera izango du datorren urtean. Bestetik, Higiezinaren Gaineko Zerga ere %1,2 igotzea erabaki dute. Azken igoera bi horiek egiteko, Kontsumoko Prezioen Indizea hartu dute oinarri lez, udal arduradunek azaldu dutenez.

Garaiko Udalak baliabideak ipini ditu herritarren kirol jarduerak diruz laguntzeko

2019an zehar kirol jardueraren bat egin duten garaitarrek diru-laguntza eskatzeko aukera dute udaletxean bertan. Eskariak urtarrilaren 31 baino lehen egin beharko dira

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak aurrekontu partida bat prestatu du biztanleek egiten dituzten kirol jarduerak diruz laguntzeko. "Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen gastuaren %30 izango da", esan dute. Hala ere, diru-laguntzak ezingo du "100 euroko zenbatekoa gainditu eskatzaile bakoitzeko".

Laguntzetarako baldintzak
Eskatzaileak honako baldintza

hauek bete beharko ditu diru-laguntza eskuratu ahal izateko: eskaera egin baino urtebete lehenago, gutxienez, Garain erroldatuta egon beharko da, eta ikastaroa amaitzen den arte egon beharko da bertan erroldatuta.

Kirol jarduerak Durangaldeko udalerrietako udal kirol zerbitzuetan edo kirol zentroetan eginak izan beharko ditu. Azkenik, eskatzailearen familia-unitateak eguneratuta izan behar ditu Garaiko

Udalari ordaindu beharreko zerga, tasa eta prezio publikoen ordainketa guztiak. Betiko moduan, NAN agiria eta bestelako ordainagiriak ere aurkeztu beharko dira.

Aurten egindako kirola

2019. urtean zehar egindako kirol-jarduerak lagunduko dituzte. Eskariak egiteko, udaletxera bertara jo daiteke dagoeneko. Urtarrilaren 31 da eskariak egiteko azken eguna.



GLC Berria. Izaera inkonformista.

Hurrengo lorpena hobea izango delakoan, lortutakoaz gozatzea kostatzen bazaizu, biok ikuspegi bera daukagula esan nahi du, eta horixe da SUV arrakastatsuen berrasmazera eraman gaituena. Ikusi GLC Berriak daukan moldakortasun berritzailea eta ahotsaren bidez eragiten den MBUX adimen artifizialeko sistema aurreratua.

GLC Berria 220d 4MATIC 48 kuotatan.
AMG Line, ADVANTAGE paketea eta Night paketea dituena.

360€/hilean¹

Sarrera: 13.899,50€. Azken kuota: 27.962,61€².
ITN: %5,99. UTB: %7,17

Ziklo nahasian kontsumo (l/100 km): 5,9-6,9.
CO₂ isurtzea (g/km): 156-182 (NEDC:137-144).

¹Finantzaketa-adibidea: GLC 220d 4MATIC SUV, 9G-TRONIC aldaketa automatikoa, AMG Line, ADVANTAGE paketea eta Night paketea dituena. J.P. 51.140,25€ (zergak, garraioa, markaren nobaria eta finantzatzeko kontzesionarioa barne. Aurre-entregatze gastuak kanpo). Mercedes-Benz Financial Services España, E.F.C., S.A. ren Alternatibari eskuragarri dagoen erabileraren bidez. 30.28108 Madrid. Baliozkoak: 2019/12/31ra arte aktibatutako kontratuak, bezeroak atzera egiteko. ²14 laneguneko epea daokala kontuan hartuta. Gutxienez, 24 hileko finantzaketa derrigorrezkoa da. Finantzu beharreko zenbatekoa 37.240,75€. Hilean 360€ 48 kuotatan, urtean 20.000 km-s, azken kuota 27.962,61€, sarrera 13.899,50€, ITN %5,99, irekitze-komisioa 1.113,50€(%2,99), UTB %7,17. Gutzira ordaindu beharreko zenbatekoa 46.356,11€. Gutzira epeko zenbatekoa 60.255,61€. ³Azken kuotarako 3 aukera: ibilgailua aldatu, itzuli (kontratuaren baldintzak betez gero) edo ibilgailua eskuratu, azken kuota ordaindu ondoren. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en.

Mercedes-Benz



Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionario ofiziala
C/Retuerto,38. 48903 BARAKALDO. Tel.:94 497 00 74. Boroa enpresa-parkea, 2A-3 part. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47.
C/Botica Vieja, z.g. 48014 BILBAO (DEUSTU). Tel.: 94 447 08 40. Iparragirre etorbidea,90. 48940 LEIOA. Tel.: 94 463 11 75
www.aguinaga.mercedes-benz.es

Durangaldea asteen**Gaur arratsaldean Gaztainerre Eguna ospatuko dute Apatamonasterioko plazan**


Atxondo | Gaur, azaroak 22, Gaztainerre Eguna ospatuko dute Apatamonasterioko plazan. Ohitura bihurtu den lez, umeentzako jolas eta tailerrekin emango diote hasiera egitarauari, 16:30ean. Gero, 18:00 inguruan, gaztaina jana egingo dute, eta 19:30ean, sasoiko eta bertako produktuen otzararen zozketa egingo dute. Ekimenaren antolatzaileak Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak dira, eta Marixurrike eta udala laguntzaileak.

Domekan Neguko azoka egingo dute Zaldibarren, hainbat berrikuntzagaz

Zaldibar | Zaldibarren dena prest dago domekan Neguko azoka egiteko. Aurten, hiru berrikuntza nagusi izango ditu azokak. Artisau garagardoa eskaintzeaz gainera, marmelada ekologikoak eta arrautza ekologikoak salduko dituzte bertan. Urtero lez, 30 bat postu ipiniko dituzte. Jose Antonio Elustondo zaldibartarrak sagardoa zelan ekoizten den azalduko du.

Zornotzako abesbatzek kontzertuak eta urteurrenak ospatuko dituzte asteburuan

Zornotza | Andra Mari ikastolako gurasoen abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur, bere 25. urteurrena ospatzeko. Ekitaldia Zornotza Aretoan izango da, 20:00etan. Xuxurlariak abesbatzak, Zornotzako Otsoteak eta Mikel Urdangarinek ere parte hartuko dute kontzertuan. Bestalde, Zornotza abesbatzak ere ekitaldia egingo du beste abesbatza bigaz, bihar, Larreako santutegian, 18:45ean.

**Hirukoa Gala lehiaketa egingo dute azaroaren 28an, Plateruenean, Berbaro Elkarteak antolatuta**

Durango | Plateruena lehiaketa berezia hartuko du azaroaren 28an, 20:30ean. Berbaro Elkarteak bultzatuta, Hirukoa Gala egingo dute bertan. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, kafe antzokira doazenez hainbat galderari erantzun beharko diete, hiruko

taldetan banatuta. Erantzun zuzena emateko, jakintza, irudimena, zortea eta umore puntu bat beharko direla azaldu dute.

Galaren aurretik, Berbarok beroketa saio bat abiatu du. Azaroan zehar, hiru astean, galdetegi bati erantzuteko aukera izan dute he-

rritarrek. Beroketa saio horretan parte hartu duten taldeei zein beste talde batzuei bertaratzeko gonbita egin diete antolatzaileek.

Izen-ematea azaroaren 26a baino lehen egin beharko da, Berbaroren webgunean edo sare sozialetan.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ZALDIBARKO
XXI. NEGUKO AZOKA
Euskal Herria etorbidean

EGITARAUA**AZAROAK 24**

10:00 Epaimahaiaren erabakia

11:00 Azokaren hasiera eta kalejira trikitilariekin

12:00 Sagardoa zelan egiten den ikusteko aukera Joxe Antonio Agirre parkean.

Antolatzaile

Laguntzaile



Zaldibar
Elizateko Udala





E
z
k
o
n
t
z
a
k

2019



LEHIOR ELORRIAGA

ARGAZKILARIA •**Ezkontzeekin lehenengo batzarra egiten duzunean, zer azaltzen diezu?**

Zein den nire lan egiteko modua egun horretan. Nola ahalegintzen naizen egun horretan ahalik eta gutxien eragiten eta gertatzen dena ahalik eta modurik naturalenean argazkitan ateratzen.

Zer gura izaten dute?

Nire kasuan, ezkongairik gehienek lehendik ezagutzen naute. Baita nire lana ere. Beraz, konfiantza eta gertutasuna baloratzen dutela esango nuke. Ezagutzen ez nautenen kasuan, prezioari begiratzen diotela esango nuke. Estiloari ere bai, noski.

Bezero exigenteak dira?

Bai, eta normala iruditzen zait! Ezkontza eguna bakarra da, eta dena ondo baino hobeto ateratzea gura dute denek. Gaur egun, ezkontzarik gehienak asko prestatzen dira. Ilusio handiagaz, bikoteek detaile asko hartzen dituzte kontuan. Lan handia egiten dute aurretik.

Gaur egun, mundu guztiak ateratzen ditu argazkiak, mugikorragaz eta abar. Hala ere, argazkilari profesionalak oso prezioak izaten jarraitzen dute ezkontzetan. Zergatik?

Mugikorragaz ere argazki asko ateratzen dituzte ezkontzetan. Baina, egia esan, mugikorreko argazki askok balioa galtzen dute askotan.

Zure ustez, zer aldatu da sasoi bateko ezkontzetatik gaur egunekoetara?

Gaur egungo argazkilari askok momentu naturalak hartu gura ditugu iruditan. Lehen ez zen hain ohikoa hori, eta gaur egun gehiago gara hori egiten ahalegintzen garenak. Gure bezeroak argi izaten du hori, baina gonbidatu askok oraindik ez. Ezkongai askok detaile pila bat prestatzen dituzte ezkontza egunerako.

Gaur egun protagonismo gutxiago izaten du argazkilariak?

Protagonistak ezkonberriak eta jaiak dira. Nik ez dut gustuko protagonista izatea. Gurago dut oharkabea pasatu. Momenturen batean bikoteak gidaritza behar badu, laguntzeko beti prest. Baina ez nik gura edo behar dudalako. Gaur egun gidaritza egiteko *Wedding Planner* deritzenak ere badaude gero eta ezkontza gehiagotan.

@lehior_photo
www.lehior.com



Eguneko momenturik berezienak iruditan



Ezkontza eguneko oroitzapenak iruditan islatzen ditu argazkilariak. Bizitakoa naturaltasunez jasotzea izaten da erronka. Helburu horregaz lan egiten du Lehior Elorriaga argazkilari zaldibartarrak.



"Egun horretan ahalik eta gutxien eragiten ahalegintzen naiz, eta gertatzen dena ahalik eta modurik naturalenean argazkitan ateratzen"

"Gaur egun ezkontzarik gehienak asko prestatzen dira. Ilusio handiagaz, bikoteek detaile asko hartzen dituzte kontuan. Lan handia egiten dute aurretik"





"Nirezat ezkontzan momentu bereziak harrapatzeak du balioa. Gertakizuna modu naturalean harrapatzea argitasun eta konposizio on batez"

akebaso
akebasorestaurante.com
Tel.: 946 582 060
akebaso@akebasorestaurante.com

SAN JUAN AUZOA 16
ATXONDO, BIZKAIA



AMAIA SALAZAR

ILE-APAINZAILA •**Ezkongaiek zelan prestatzen dute orrazkera ezkontzarako?**

Normalean, aurrez pentsatutako ideiarekin bat izaten dute, euren gustatzen zaien orrazkeraren bat. Ezkontzaren aurretik, gutxienez proba bat egiten da, ezkongai eta gu geu ere lasaiago egoteko. Guretzat garrantzitsua da, geu aukeratu gaituztelako euren egun berezi horretarako. Proba horretan adosten dugu orrazkeraren estiloa, soinekoaren, aurpegiaren eta ilearen arabera. Guk aholkuak ematen ditugu, baina, azkenean, bera izango da azkenengo hitza duena.

Idea finko batez joaten dira?

Bai. Normalean, argazkiak ekartzen dituzte, eta euren soinekoak, aurpegiak eta estilora moldatzen ditugu. Tresna ona izaten da andregaiaren nondik norakoak ezagutzeko.

Zein estilo dago modan?

Deseginda daudela diruditen ile bildu baxuak daude modan. Zenbait eratako trentzak, bai ile guztia batzen dutenak, bai orrazkeraren osagarri lez egiten ditugunak. Esan dezakegu naturaltasuna bilatzen duten orrazkerak direla modan daudenak.

Gonbidatuek gehiago arriskatzten dute?


Bai, noski. Arropa aldetik gehiago arriskatzeko aukera dutenez, ileak ere joko gehiago ematen du. Orrazkera batek look guztia osatu dezake.

Jendeak egiten du tratamendurik?

Ba, egia esan, ilea ondo zainduta badago, ez da behar izaten. Hori bai, kolore aldaketak egin behar badira, aldeztu behar dira. Baita ilea moztu behar bada ere.

Onartzen dituzte profesionalen aholkuak?

Bai, konfiantza izaten dute gudan.



"Deseginda daudela diruditen ile bildu baxuak eta askotariko trentzak daude modan"




Orrazkera naturalak askotariko trentzekin hornituta

Orrazkera estilismoaren osagarri garrantzitsuenetariko bat da. Horregatik, ezkontzarako jantzia aukeratzeagaz batera, garrantzitsua da orrazkera pentsatzen hastea. Sofistikazioa eta naturaltasuna eskutik doaz.



NUKLEO
ileapaindegia

Nizeto Urkizu Kalea, 14,
48230 Elorrio, Bizkaia

Tel. 946 58 29 96
p.nukleo@gmail.com

"Ezkontzaren aurretik gutxienez proba bat egiten dugu. Orrazkera adosten dugu soinekoaren, aurpegiaren eta ilearen arabera"




ADOLFO DOMINGUEZ

Artekale 22, Durango
48200 Bizkaia
Tel.: 98 839 87 43



NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO



ANE FERNANDEZ
DE RETANA

DURANGO •

Hampton bitxien eta osagarrien dendari Attika gehitu diozue. Zergatik?

Manikura egiteko konfiantzazko leku baten falta sumatzen nuen Durangon. Horregatik, orain arte Durangon egon ez den zerbitzu bat eskaintzea bururatu zitzaidan, eskarmentu handiko profesionalekin. Kalitatezko produktuak erabiliz lan egiten dugula nabarmenduko nuke. Depilazioa eta bekain apainketa ere egiten ditugu.

Zer eskaintza duzue ezkontzetara begira?

Manikura egiterakoan, aholkularitza lana egiten dugu. Ezkontzen kasuan, manikura klasikoak egin daitezke. Ausartagoentzat, dekorazioak eskuz egiten ditugu. Egun horretara begira, bekainak ere konpontzen ditugu.

Eta ondoko lokalean, ezkontzarako bitxiak zein osagarriak erosteko aukera izan dezake bezeroak.

Ezkontzarentzako zein gonbidatuentzako

bitxiak zein osagarriak ditugu Hamp-tonen. Gainera, bezero bakoitzari bere beharrianen arabera ematen dizkiogu aholkuak. Ezkontzara begira zein egunero-korako, garrantzitsua da bezeroak zer gura duen eta zertarako erabiliko duen jakitea, zerbitzu on bat eskaintzeko. Opariak erostera ere jende asko etortzen da, eta kasu horretan ere oparia jasoko duen pertsona-ren ezaugarriak ezagututa aholkatzen eta asmatzen ahalegintzen gara.

Hampton & Attica

Zure ezkontzarako ezinbestekoak



Hampton

H

HAMPTON

Montevideo, 3 · Durango
Tel. 946 056 295

Ortiz de Zárate, 17 bajo · Vitoria
Tel. 945 033 209




Montevideo etorbidea
3 behea - 1 ezk.
Tel. 697 823 322



Whitealice

Whitealice, Alicia Ruedaren bilduma berria

Bezero askok jantzi zuriak eskatzen zituzten koktel, zeremonia eta ezkontza informaletarako. Beharrian horri erantzunez, Alicia Ruedak Whitealice bilduma sortu zuen. Estilo propioa dutenentzat, nahasmenik gura ez dutenentzat, sinpletasuna gogoko dutenentzat...



*Osoko jantziak,
blusak, soinekoak,
gonak, sueterrak,
pieza bikoak...*



*Jantzi hauek
eskuragarri daude
'aliciarueda.com'
webgunean eta
Bilbon daukan
dendan*



Goco Tour AUTOKARRAK

ESKOLA-GARRAIOA
EZKONTZAK, OSPAKIZUNAK,
LANGILEEN GARRAIOA
LANTEGIETARA,
KONGRESUAK

9/18/22/30/34/55/67/72
PLAZATAKO AUTOBUSAK

Arregi auzoa – Condor industrialdea – C Eraikina – AMOREBIETA
Tel.: 946 308 250 · gocotour@gocotour.com
www.gocotour.com



Boroa Auzoa
Garai Baserría, 11
ZORNOTZA
boroa@boroa.com
Tel.: 946 734 747

BOROA
JAETXEA

Ametsetako tokia naturaren bihotzean.

Zuekin batera konpromisoa hartzen dugu zuen ezkontza eguna ospakizun ahaztezina izan dadin. Horretarako, nahi dituzuen zerbitzu guztiak jartzen ditugu zuen eskura, detaile guztiak ezin hobeto zainduz.

Terrazan zeremonia zibilak egiteko aukera ere eskaintzen dugu.

Estilo handiko gonbidatuak



Ezkontzek geroago eta aukera zabalagoa ematen dute jantzi eta osagarri "ausartak" eramateko



ENZO ROMANO



DURANGON ORDUKAKO
TXOKO ALOKAIRUA



Komentukale 23 behea, 5. esk.
48.200 Durango - BIZKAIA

Bazkariak
afariak
urtebetetzeak
ospakizunak
bataioak
jaunartzeak
enpresa bilerak

688 864 975
info@zuretxokoa.com
www.zuretxokoa.com



Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak
eta aholkularitza

Ezkongaienezako eta
gonbidatuentzako bonuak
%25erainoko deskontua

Goienkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • www.anacamarero.com



GRAN HOTEL
DURANGO

AMESTEN

AL DUZUE

ZUEN EZKONTZA

EGUNEAN...



... uneoro aholkuak ematen dizkizuen talde bategen prestakuntza duela zuen menua, gonbidatuek erosotasun guztiak dituztela, hurrengo egunera arte presarik gabe ostatu hartzen dutela.

Zuen ezkontza eguna amets bat izatea zuen esku baino ez dago.

Errealitate bihurtu nahi genuke.

Gran Hotel Durango****

Zuen ametsarekin bat



Ezkontza ahaztezinak

leku paregabe batean



GRAN HOTEL
DURANGO

Osasun gida

anboto

 **Ginekologia**
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Fisioterapia**
PSE: 155/17



HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaestheticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

 **Optometria**
PSE: 162/13

 **keinu** optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

 **UGATZ**

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Giza biblioteka

KONTAKIZUNA
DURANGO :: Azaroak 27

Migrazioa eta generoa berbera

Durangora datozen emakume migratzaileen ikuspegi eta egoeren aniztasuna erakutsiko dute sei emakumek —Argentina, Peru, Ghana, Maroko eta Errumaniakoak—, Bizenta Migel liburutegian. Kontatuko dituzten istorio eta bizipenek lotura bat dute amankomunean: migrazioa eta generoa. Bideak gurutzatuz: gure komunitatea osatzen duten migrazio arloko bizi istorioak ekimenaren barruan izango da, hilaren 27an, 18:30ean.

Azaroaren 22an

DURANGO musika
DURANG(H)OTS: Exit Quartet: Daniel Artetxe (gitarra), Roman Degtiarev (saxoa), Guillermo Soloaga (baxua) eta Kiko Garcia (bateria), 21:30ean, Plateruena kafe antzokian

DURANGO narrazioa
'Cosas de mujeres' helduentzako ahozko narrazio saioa (Coralia Rodriguez-Kuba), 19:00etan, liburutegian.

ZORNOTZA solasaldia
'Emakumeen eta LGTBI erkidegoaren eskubideen defentsa', 17:00etan, Nafarroa zentroan. Herri Babesareak antolatuta.

ELORRIO musika
Trizak, 22:30ean, Ateneon. 30. Jazz Blues Jaialdia.

Azaroaren 23an

BERRIZ ipuinak
Ipuin txokoa: 'Nirekin bidaiatu' (Erika), 12:15ean, Kultur Etxean.

ELORRIO musika
Anthony Stelmaszack, 22:30ean, Ateneon. 30. Jazz Blues Jaialdia.

ZALDIBAR musika
VII. Gari Rock Fest: The Renegados + Señor No, 20:00etan, Gaztetxean.

ZORNOTZA musika
'Berriketan' (La Pulga & Cia), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA musika
Zornotzako Abesbatza+ Coro Escarcha (Valdepolo, Leon) + **Abes-Kimu abesbatza**, 18:45ean, Larreako Santutegian.

Azaroaren 24an

DURANGO dantza
Dantzadantza, 18:30etik 20:30era Landako Kiroldegian. Adinekoen Sailak antolatuta.

ELORRIO musika
Micky & The Buzz, 20:00etan, Gaztetxean. 30. Jazz Blues Jaialdia.

IURRETA lehiaketa
ZALDAI mendi argazki lehiaketarako azken eguna. Argazkiak zaldai@hotmail.com helbidera bidali daitezke. Oinarriak: www.zaldai.eus

Azaroaren 26an

DURANGO opera
'Don Pasquale' aurrez grabatutako opera emanaldia HDn, 19:30ean, Zugaza zineman.

IURRETA hitzaldia
'Autoestimua, buru osasuntsu baterako gakoak', 18:00etan, Goiuriko Ama elkarteak antolatuta. XXVIII. Kultur Astearen barruan. Hizlaria: Jon Fernandez psikologoa.

Azaroaren 27an

IURRETA musika
Txetxu, 18:30ean, Goiuriko Ama Nagusien elkarteak antolatuta.

ZORNOTZA hitzaldia
'Euskalduntze berantiarra + Zer gertatzen ari da Iruña-Veleian?', 19:00etan, Zelaieta zentroko areto nagusian. Hizlariak: Patxi Alaña euskara teknikaria eta Aitzol Altuna historialaria. Nañon euskara elkarteak.

Azaroaren 28an

ATXONDO film emanaldia
Anbotoko mendilerroan, Larrano inguruan, diseinatu eta garatu den proiektua, film dokumentala, 19:00etan, udaletxeko pleno aretoan. Basoa Fundazioa.

BERRIZ hitzaldia
'Euskaraldia 2019-2020 gehiago eta sakonago', 19:00etan, Kultur Etxean. Hizlaria: Kike Amonarriz.

ZALDIBAR hizaldia
'Ipuinak eta emozio heziketa', Juan Karlos Alonso psikologoagaz. Izena eman behar da liburutegian.

Azaroaren 28ra arte

DURANGO erakusketa
'Open Itinera FIG Bilbao'. Arte grafikoko 30 artistaren lanak, Arte eta Historia Musean.



Sokaren beste muturrean

IKUS-ENTZUNEZKOA
ELORRIO :: Azaroak 22

Erdella mendizale taldeak gonbidatuta, Ihintza Enseñar eta Javi Valero egongo dira, gaur, Iturri kultur etxean. 'Al otro lado de la cuerda' ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute, 19:30ean, Mendi Astearen barruan.

Gaztetxeak 20 urte Iurreta

URTEURRENA • Iurretako Gaztetxeak 20. urteurren jaia antolatu du zapaturako, azaroaren 23rako. Trikipoteoagaz hasiko dute eguna, 13:00etan, eta 14:30ean bazkaltzeko batuko dira. Umeen jolasak egongo dira gero, eta 18:00etan, poteoa. 20:00etan, Obaneuke taldeak erromeria giroa ipiniko du. Hori amaituta, karaokean jarduteko aukera egongo da.



Abenduko agenda



22	IU GAZTE ETXEGO 17:00 Ping-pong txapelketa ANTZERKIA ARETOAN KULTURA SAILA - ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA Ibarretxe Kultur Etxea 19:00 Helduen antzerkia Diva di palo Sarrera gonbidapenagaz
23	GIZARTE ONGIZATE SAILA GERLARI 10:00 Autodefentsa ikastaroa emakumeei zuzendua
25	INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA Eskola zentroetan ekintzak. Pegatinak eta puntu moreak banatuko dira. 18:30 Adierazpen Instituzionalaren Irakurketa Jarraian "NAGORE" dokumentala
26	GOIURIKO AMA NAGUSIEN ELKARTEA Iurretako Udala - Kimuak Aisialdi Taldea / Olaburu frontoia 18:00 Pertsona Nagusien XXVII. Aste Kulturalaren hasiera Hitzaldia: <i>Autoestima, claves para una mente sana</i> Hizlaria: Jon Fernandez (Psikologoa) Maiztegi Herri Eskola Arratsaldean Hitzaldia: ANA VIDU Ibarretxe Kultur Etxean

AZAROAK 25 · EGITARAU



Azaroaren 22an

Elorrión, 'Zer gertatu ote zitzaion Ana Garciari?' (Pabellón N°6 Gazte Konpainia), 20:30ean, Arriola antzokian. 11:00etan, 13 urtetik gorakoentzat.

Iurretan, 'Diva di Palo' antzezlan, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Azaroaren 23an

Berrizen, 'Elisa y Marcela' antzezlan, 20:00etan, Kultur Etxean.

Durango, '¿Qué fue de Ana García?' (Pabellón N°6 Gazte Konpainia), 19:00etan San Agustín kulturgunean.

Iurretan, autodefentsa ikastaroa, 14 urtetik gorakoentzat.

Azaroaren 24an

Durango, IV. Emakumeen Lasterketa, 11:30ean, Ezkurdi plazan. 11:15ean, lasterketa laburra. Izena ematea: www.kirolprobak.com, Andragunean eta Landako II Kiroldegian.

Azaroaren 25ean

Abadiñon, kontzentrazioa, 19:00etan, Trañabarren kalean.

Berrizen, udaletxetik Urriaga plazara martxa, 19:00etan.

Durango, Adierazpen instituzionala. Jarraian, manifestazioa. Durangoko Mugimendu Feministak deituta.

Elorrión, 'Elorrión indarkeria matxistari ez!', 19:00etan, Herriko plazan.

Iurretan, adierazpen instituzionala, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Jarraian, 'Nagore' dokumentala.

Mañarian, kalejira zaratatsua, 19:00etan. Kartela egiteko batuko dira, 18:30ean, plazan.

Zaldibarren, hitzaldia Patricia Campeloren eskutik, 17:30ean, liburutegi zaharrean. Kontzentrazioa Dominika talde feministak deituta, 19:00etan, Lehendakari Agirre Parkean.

Azaroaren 26an

Berrizen, 'Emakumeen aurkako bortizkeria identifikatzen' hitzaldia, 18:30ean, Kultur Etxean.

Iurretan, 'Genero indarkeria prebenitzea eta gaintzea: apurtu dezagun isiltasuna', 17:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Hizlaria: Ana Vidu. 14:00etan, Juan Orobiogoitia institutuko ikasleentzat.

Azaroaren 27an

Berrizen, 'Tomboy' film dokumentala, 19:00etan, Kultur Etxean.

Zornotzan, 'Amata Pirata' ipuin kontaketa, 18:00etan, liburutegian (4-8 urtekoentzat). Emakumeentzat clown ikastaroa. Izena emateko, hilaren 25era arte.

Azaroaren 29an

Iurretan, 'Cuando te hablen de amor' helduentzako ipuin kontaketa, Martha Escuderoren (Mexiko) eskutik, 19:00etan Ibarretxe kultur etxean. 'Hllekoa(K)' erakusketa, azaroaren 29ra arte, kultur etxean.



Frozen II
Durangon

DURANGO tailerra

'Reflexionando sobre la maternidad' elkarrizketa filosofiko tailerra, 18:30ean, liburutegian. Filosofian lizentziaduna den Miren Camisonek gidatuta.

IURRETA musika

'Peer Gynt haizezko boskotea eta narratzailea' (Juan Orobiogoitiako ikasleak) 11:30ean, kultur etxean.
'Tutto Opera' (Gehi Zazpi) 19:00etan. Musikaldia.

Azaroaren 29an

ABADIÑO ipuinak

'La domadora de sueños' (Virginia Imaz), 19:00etan, Txanporta kultur etxean.

ELORRIO antzerkia

'Ghero. Azken euskalduna' (Tartean Teatro), 20:30ean, Arriolan.

ZORNOTZA antzerkia

'La Zanja' (Titzina Teatro), 20:15ean, Zornotza Aretoa.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Maléfica**
barikua 22: 18:15
domeka 24: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Frozen 2**
barikua 22: 19:30/22:00
zapateria 23: 17:00/19:30/22:00
domeka 24: 17:00/19:30/21:30
astelehena 25: 18:30/21:00
martitzena 26: 20:00
eguztzena 27: 20:00
• **Los Miserables**
barikua 22: 19:30/22:00
zapateria 23: 20:30/22:00
domeka 24: 18:30/20:45
astelehena 25: 18:30/21:00
martitzena 26: 20:00
eguztzena 27: 20:00
• **Si yo fuera rico**
barikua 22: 19:30/22:00
zapateria 23: 18:30/22:30
domeka 24: 18:30
astelehena 25: 18:30
• **La trinchera infinita**
zapateria 23: 18:30
domeka 24: 20:45
astelehena 25: 20:30
martitzena 26: 20:00
• **La familia Adams**
zapateria 23: 16:30
domeka 24: 16:30
• **Abominable**
zapateria 23: 16:30
domeka 24: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **El Hoyo**
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 20:00
• **Abominable**
domeka 24: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **El Hoyo**
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 20:15
• **Muga deitzen da Pausoa**
zapateria 23: 22:15
• **Luis eta estralurtarrak**
domeka 24: 17:00



IBAN GORRITI

“Hedabideetatik jasotzen dugun kritika on bakoitza gure iraunkortasunari emandako saritzat hartzen dugu”

Alerta talde durangarrak 'Tú decides el final' diskoa kaleratu du. Hogeita bi urteko ibilbidean, boskoteak beste mugarri bat ipini du disko honeguz. Egun, Jabí, Beny, Sesi, Txitxi eta Kantero dira Alerta osatzen duten kideak

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Kostata, baina ikusi du argia 'Tú decides el final' diskoak, Alertaren lan berriak. Furgoneta hartu, eta deitzen dieten leku guztietan aurkezteko gogotsu dabilta. Bideoklipa ere grabatu dute, Eneko Basetagaz, eta azala Bit-tor Camarak egin die. Hogeita bi urteko ibilbidean lagun ugari egin dituzte.

'Tú decides el final' diskoak berritasunak dakartza.

Hogeita bi urte hauetako eboluzioa dakar, hainbat matizekin: metal doinuak muturrera eramán ditugu, eta hardcore doinuak ere bai. Horrela irten zaigu, ez da bilatu dugun zerbait.

Zuen kontura grabatu duzue.

Bai, lokalean grabatzeak abantailak ditu, bai erosotasun aldetik, bai

alde ekonomikotik. Astean birritan entseatzen dugu, eta hor egin behar dugu guztia: konposatu, eta grabatu. Denbora asko eramán digu; otsailetik geneukan grabatuta, baina atzeratu egin genuen

“

Metal doinuak muturrera eramán ditugu, eta hardcore doinuak ere bai; horrela irten zaigu”

■

publikazioa, Blood Fire Deatheko lagunek hala gomendatuta; urrira arte itxaroteko esan ziguten.

Oso harrera ona edukitzen dabil hedabideetan.

Bai. Egia esan, oso pozik gaude. Kritika on bakoitza gure iraunkortasunari emandako saritzat hartzen dugu. Orokorrean, ezer berririk ez dugula sortu esaten ari zaizkigu, baina garapen bat nabaritzen dela azpimarratzen digute. Feedbacka oso ona izaten ari da entzuleen artean ere, zuzenekoetan. Orain denbora gutxi, Santanderren (Espainia) jo genuen, eta nahikoa lagun mugitzea lortu genuen, adibidez.

Zein da sekretua hogeita bi urteko ibilbidea egiteko?

Bikote harreman baten modukoa da, eta entsegurik ez dagoenean adibidez, horren falta igartzen duzu. Errutina bat ere bilakatu da. Gure artean desberdintasunak ditugu, baina hori ona dela uste dugu, aberasgarria. Erraza ez da izan. Nola lortu dugun? Ez dakigu. Zorte apur bat ere izan dugu, gure inguruko talde asko bidean geratu dira eta. Gure garaiko taldeen artean, Sei Urte izango da bizirik jarraitzen duen bakarra. Beharbada, dirua egongo balitz edo bestelako presio maila bat... Orain, Blood Fire Deathen kontuagaz, presio apur bat gehiago edukiko dugu, baina ez dakigu. Gure lan eskemetara ondo moldatu dira.

Nondik dator Blood Fire Deathegaz elkarlana?

Hogeigarren urteurreneko biratik dator. Eurekin hartu-emanetan ipini ginen kontzertu batzuk lortzeko asmoz, eta diskoetxe lez ere funtzionatzen zutela esan ziguten;

baldintzetako bat, baina, eurekin hutsetik hasi behar zela zen. Kasu horretan ezin izan zen, baina hurrengorako probatzekotan geratu ginen. Disko berria esku artean genuenean, eurekin hartu-emanetan ipini ginen berriro. Interesa agertu zuten hasieratik, eurentzat ere erronka bat zelako. Death metaleko taldeekin lan egiten dute batez ere, eta, beharbada, gurea baino ibilbide laburragoa duten taldeekin.

“

Azaroaren 30ean Iruñean egongo gara. Bestalde, Estatuan egitekoak garen bira lotzen ari gara”

■

Lehenago ez zitzaigun horrelakorik gertatu, eta, beraz, guretzat ere interesgarria da. Pozik gaude gainera, izan ere Rockzoneko Pau Navarra da diskoetxe kideetarikoa bat. Beraz, badakigu filtro zorrotza pasatu dugula.

Diskora itzulita, kritikaz beteriko berbak idatzi dituzue, baina positiboki.

Bai, funtsa horixe dela uste dugu. Arazo bat dagoen bakoitzean kexatzea ez da nahikoa izaten. Askotan esaten da 'arazo bat baduzu, ez etorri kexagaz, etorri konponbideagaz'. Bada, guretzat ere hori da. Salatzen dugu, baina gure aletxo

ipini gura dugu konponbiderako. Azken disko hau bereziki kritikoa irten zaigu, baina bizi dugun egoeragaz ere ez da gatxa izan horrelako berbak irtetea.

Martxoak 31ren 'Ene lagun galduak'-en bertsioa ere sartu duzue diskoan. Iban Gorritik ere abestu du bertan.

Urteak daramatzagu abesti hori jotzen, bertsio desberdinetan, gure eboluzioaren arabera. Gorritik beti babestu gaitu, beti egon da gugaz, aholkatu egin gaitu, eta hainbat bider igo da oholtzara gugaz abestera. Bide batez, esker oneko aitortza bat izatea gura genuen, baina ez horretarako bakarrik; bai Martxoak 31, bai Gorriti bera omentzeko gogoia genuen.

Baduzue beste kontzerturik epe motzera?

Azaroaren 30ean Iruñean egongo gara. Bestalde, Estatuan egitekoak garen bira lotzen ari gara. Orain artean, noizbehinkako irteerak egin ditugu; hau, ostera, zerbait potentea izango da. Ezin dugu ezer gehiago aurreratu, birak 2020 osoan zehar iraungo duela bakarrik.

Zer geratzen zaio esateko Alertari?

Sinesten jarraitzen dugu, eta inoiz baino indartsuago sentitzen gara. Hasierako gogo berdinekin jarraitzen dugu. Oso bizirik gaude, eta istorio hau beste modu batera bizitzeko aukera berri batez Blood Fire Death taldeagaz. Ume bat zapatila berriekin lez gaude, apurtzeko prest.

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

BASQUE
LABEL
HARATEGIAK
IK



**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 GURE —
BASERRITARREKIN



EUSKO LABEL PRODUKTUAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

DURANGO:
IÑAKI HARATEGIA - Sasikoa, 10

IGORRE:
REKALDE HARATEGIA - Sabino Arana, 30

1901ean emakume bik Coruñan ezkontzeko egin behar izandakoak kontatuko dituzte Berrizen

A Panadaría konpainiak zapatuan aurkeztuko du antzezlan, 20:00etan; emanaldia Berrizko Kultur Etxean izango da



Areta Bolado, Noelia Castro eta Ailen Kendelman.

ANTZERKIA • A.M.

A Panadaría konpainiaren azken lana, *Elisa y Marcela*, maitasuneko istorio bat da. Areta Boladoren, Noelia Castroren eta Ailen Kendelmanen sorkuntzak 1901eko Coruñara (Gali-

zia) darama ikuslea. Eurak dira, hain zuzen ere, obrako hiru antzezleak. Elisa eta Marcela dira istorioko protagonistak. Bikotea ezkondu egingo da, San Xurxoko elizan, bietariko bat gizon moxorrotuta dagoela. Hor-

tik aurrera, poliziaren jazarpena, ihesaldiak, identitate aldaketa eta informazioaren manipulazioa bitzen dituen istorioa kontatuko dute. A Panadariaren azken lanak egoera erreal baten berri emango du, lo-

tsagabeki. *Elisa y Marcela* komedia musikatu da, benetako gertaerek gezurra diruditen arren.

Kritikaren harrera ona edukitzeaz gainera, *Elisa y Marcela*-k bederatzi sari jaso zituen; aktore,

testu eta zuzendaritzarik onenaren sariak jaso zituen 2018an, besteak beste. Publikoaren saria eta berdintasunaren eta LGTBIQ+ kolektiboaren saria ere jaso zituen.

Ibilbide saritua

A Panadaría konpainia 2013an sortu zen, eta, harrezkero, Boladok, Castrok eta Kendelmanek lanerako formula berari jarraitu diote, hasierako errezetari ekinga. Sorkuntza propioa oratzen dutela diote, eta horregatik deitu zioten A Panadaría

Kritikaren harrera itzela edukitzeaz gainera, 'Elisa y Marcela' antzezlanak bederatzi sari jaso ditu

(okindegia, galizieraz) konpainiari, eta esfortzua eta jarraikortasuna lantzen dituen ofizioa delako. "Mundu osoan, gizakiak ogia eta antzerkigintza egiten ditu; biek ere gorputza eta arima elikatzen dituzte, guk bezala", diote.

Elisa y Marcela obragaz lez, aurretik ere sariak jasotakoak dira. *Pan! Pan!* antzezlanagaz (euren ibilbideko lehenengoa) Crítica de Galicia saria jaso zuten 2015ean. María Casares sari bat ere jaso zuten, eta Xuventude de Crea saria.

Gari Rock jaialdian, The Renegados eta Señor No taldeek eskainiko dituzte kontzertuak

Zapatuan zazpigarren aldia egingo du Zaldibarko gaztetxean izango den musika jaialdiak

MUSIKA • JOSEBA DERTEANO

Izen bereko elkarteak antolatuta, Gari Rock Fest 2019 jaialdiak zazpigarren aldia beteko du zapatu honetan. Talde bi igoko dira Zaldibarko gaztetxeko oholtzara: The Renegados eta Señor No. Kontzertuetarako sarrera 5 euro izango da.

The Renegados Miguel Moral musikari bilbotarrak 2018an abiatutako proiektua da. Eskarmentu handiko musikariz inguratuta,

70eko hamarkadako hard rock doinuetan oinarritutako abestiak eskainiko dituzte, 20:00etan. Ondoren, 22:00etan, Señor No rock taldearen txanda izango da. 25 urteko ibilbide luzean, zazpi disko kaleratu ditu laukote donostiarrik. 'Siete veces no' izeneko azken lana aurkezteko biraren barruan igaroko dira Zaldibarretik. Abesti berriez gainera, euren klasikoak ere joko dituzte.

Bertan afaltzeko aukera

Gari Rock jaialdiko aurreko aldietan, kontzertuak afalostean hasten ziren, baina aurrean aurreratu egin dute ordutegia, eta lehenengo taldea 20:00etan hasiko da lanean. Musikazaleei ahalik eta ordutegirik erosoena eskaintzea da aldaketaren helburua. Gainera, gura duen bertan afaltzeko aukera izango du; izan ere, *foodtruck* bat ipiniko dute 19:00etan.



Señor No taldeak 'Siete veces no' izeneko lan berria aurkeztuko du.

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

GAER 

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Landakok itxura eraberritua dakar Durangoko Azokaren 54. ediziorako

Durangoko Azoka abenduaren 5etik 8ra izango da; 400 nobedadetik gora aurkeztuko dituzte bertan, erdiak literatura arlokoak

DA! • ARITZ MALDONADO

30 urtean lehenengoz, Durangoko Azokak erakusmahaien irudia aldatuko du. Garaietara egokitzeko helburuagaz egingo dutela azaldu du Nerea Mujika Gerediaga elkarteko lehendakariak. "Erakusmahaiak zurezkoak izango dira eta errotulazioetan kolore desberdinak eta ikonoak izango dituzte. Azokak bere burua eguneratzeko ahaleginetan jarraitzen du". Guztira, 264 erakusmahai egongo dira. Produktuei dagokienez, 405 nobedade egongo dira: 273 liburu, 91 disko, 16 aldizkari, 5 ikus-entzunezko eta bestelako hogei lan.

Egitarau osoa ANBOTOren webgunean dago ikusgai; 200 ekitalditik gora egongo dira guztira

200 ekitalditik gora

Ahotsenean Euskal Herri osoko 111 talde, bakarleri eta idazle batuko dira, zuzenekoan karpan eta solasaldien gunean. "Rocka nagusi izango bada ere, hip hopa, trapa eta trikitixa doinuak ere egongo dira, besteak beste", azaldu du Unai Pelayo Ahotseneako arduradunak. Irudienean, bestalde, mundu digitalagaz hartu-emanan duten proiektuak aurkeztuko dituzte, hala nola websailak eta youtuberren kanalak. "Sarean euskarazko edukiak egoteari

lehentasuna ematen diogu", azaldu du Johana Olabarria arduradunak. Saguganbaran, umeentzako ikuskizun eta tailer ugari antolatuko dituzte. Autoekoiztutako ipuinak nabarmenduko dituzte, Itsaso Gangoitia guneko arduradunaren esanetan.

Szenatokiak nobedade nagusi bat dakar aurtentzen: Dantza eta Antzerki Laburren Jaialdia egingo dute 30 emanaldigaz. "Artistek San Agustin eraikineko zenbait gune erabiliko dituzte", aurreratu du Arantza Arrazola guneko arduradunak. Kabi@ guneak ere nobedade sorta dakar. Mundu digitalean euskaraz sortutako azken nobedadeak topatuko dira bertan. "Egunean Behin aplikazio arrakastatsuen sortzaileek bitxikeriak kontatuko dituzte, eta Mauriziak ez du inor hil kontzertu berezia edukiko dugu Ines Osinagaz eta Lorea Argarategaz, oholtzako emakumei gorazarre egiteko", azaldu du Gorka Juliok. Bestalde, Plateruena gunean En

Plateruenean En Tol Sarmiento, Zetak, Arkada Social eta Maider Zabalegi egongo dira

Tol Sarmientok, Zetak taldeak, Arkada Socialek eta Maider Zabalegi kontzertua eskainiko dute. "Hautsi Telebista saioan bideoklipak aztertuko ditugu protagonistekin batera", azaldu du Iñintza Orbegozo guneko arduradunak.



Guneetako arduradunak eguazteneko aurkezpenean.



Zetak Plateruenean egongo da.



'Hautsi telebista', iaz.

Gai librea

Ainhoa Urien Telletxea
Ikaslea



Armairuak Ikean!

Armairuz josita daukagu Durangaldea ere. Armairutik ateratzea, oro har, homosexualitatearen aitortzarekin lotzen da, konfesatu beharreko zerbait balitz bezala. Konfesioak, gainera, beti dakar berarekin gaizki egin izanaren susmoa. Kontua da, gaizki egiten duen pertsona ez dela armairutik ateratzen dena, baizik eta armairuan egotera kondanatu duena, bere eguneroko praktiken bidez. Esaterako, heterosexual batek sekula ez du konfesatu beharko "ni heteroa naiz" esanez, beste barik halantxik dela uste delako. Ba uste hori duenak ere ahalbidetzen du oraindik armairuak existitzea. Esan beharrik ere ez dago armairuan sartuta egotearen kondena ez dutela homosexualiek bakarrik sufritzen. Generalean, gizarteari normatik eskapatzen zaion guztia sartzen da armairuan; hor dago, badakigu, baina hobe ezkutututa.

Horregatik, izan gay, lesbiana, txakur berde, bost hankako katu, adar bakarreko ahuntz, ardi baltz, txiki, handi, gizon titidun, emakume bizardun edo ez bat eta ez beste. Zure burua armairuan sarrarazi dituztela ikusten baduzu, zabaldu atea indarrez eta eman musturretako bat armairuan egonazaituenari. Aldarri bat egin beharrean gaude, izan nahi dugun hori behingoz askatasunez biziko badugu. Pankarta bat jarri dezakegu Gerediagako miradoretik, hamabi harrietan esertzen zirenetatik batzuk ere armairu barruan egongo zirelako... Armairuak Ikean!

ARRETXE GESTION
ERAKIBUNTZA ETA BIRGAIBUNTZA

TXALETAK - TXOLOAK - FATXADAK
BASERRIAK - ETXEBIZITZAK TEILATUAK
NABEAK - ERAISKETAK - MARMOLGINTZA
HARGINTZA - INPERMEABILIZAZIOA

GREMIOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

WWW.ARRETXEGESTION.COM INFO@ARRETXEGESTION.COM
658 120 215 ZORNOTZA / BIZKAIA

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak

<p>1^o</p> <p>BASA Miren Amuriza (Elkar)</p>	<p>2^o</p> <p>ETXEAK ETA HILOBIAK Bernardo Atxaga (Pamiela)</p>	<p>3^o</p> <p>ZELDAK - GORPUTZ HONETATIK Elena Olave (Balea Zuria)</p>	<p>4^o</p> <p>VERTZINGETORIXEN ALABA (ASTERIX 38) Ferri & Conrad (Salvat)</p>	<p>5^o</p> <p>IRITSI GARA (GO/AZEN 1) Jasone Osoro (Alai)</p>
-------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------

**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitetz berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak



Ander Azpitarte
Agirregomezkorta
Garaiko ziklo-kroseko
antolatzaileetariko bat
Garai | 1981

Beste zirkuituekin alderatuta, apur bat desberdina da. Arboladietan zehar doazen tarreak ditu, beste une batean belardi zabalak daude, aldats gorak eta aldats beheak...

Garain dauden aldatsak kontuan hartuta, ibilbide gogorra da?

Denek berdina esaten digute, nahitaez gogorra izan behar duela. Ba, begira, alde batetik bai, baina beste alde batetik ez. Izan ere, aldatsik gehienak zoru gogorretik igotzen dira, zementutik eta asfaltotik, eta ziklo-krosean landetakoak izaten dira igoyerarik gogorrenak, erru-berak laban egiten duelako. Badu desnibela, eta gogorra da, baina ziklo-krosean dabilena moldatuko da. Zirkuitu luzea eta azkarra da. Hainbat zatitan lur pribatuetatik doa eta, zorionez, alde horretatik zorte handia izan dugu. Lur pribaturik gehienak Lander Loizate herrikidearenak dira eta bera oso ilusionatuta dago ziklo-kros proba-

“Izagirre anaiak, Luis Leon Sanchez eta Omar Fraile datoz Garaiko ziklo-krosera”

Urte askoan antolatzea amestu izan duen proba errealitate bihurtuko da zapatuan, Garai Triatloi Taldekoen lanari eskerrak

ZIKLO-KROSA • JOSEBA DERTEANO

Txarra onerako akuilu lez erabili du Ander Azpitartek. Minbizia diagnostikatu ziotenean, sentitu zuen ezin zuela gehiago itxaron bere betiko ametsa gauzatzeko: Garain ziklo-kros proba bat antolatzea. Lagunei komentatu eta denak buru-belarri lanean hasi ziren ordura arte berbak bakarrik zirena errealitate bihurtzeko. Orain, gaixotasuna atzean utzita, garaitarrek bere lehenengo ziklo-kros probagaz gozatu dute zapatuan.

Ziklo-kros proba antolatzea ez da kasualitatea. Zu eta zure hainbat lagun txirrindulari ohiak zarete.

Bai, kuadrillakoei eta niri beti gustatu izan zaigu txirrindularitza. Ni 2006ra arte ibili nintzen. Lesioengatik utzi nuen, eta oso sakrifikatua zelako. Eguneko 24 orduetan izan behar duzu bizikleta gogoan, eta horrek nekatu egiten du. Oso gogorra da. Gainera, sasoi hura nahiko iluna izan zen txirrindularitzan, dopin kasu asko irten zirelako. Txirrindularitzan zabilzala esan, eta, "hara, beste dopatu bat" eta antzerakoak entzun behar! Txirrindularia susmopean zegoen beti.

Eta zuk zeuk betidanik gura izan duzu Garain ziklo-kros proba bat antolatu. Zure amets bat ei zen.

Garain ziklo-kros proba bat antola-

zteza urte askoan izan dut buruan, bai. Beste mota bateko probak antolatu izan ditugu, baina ziklo-kros probarik ez.

Zelan gorpuztu da beti buruan izan duzun asmo hori?

Ziklo-krosaren ideia plazaratzen nuen bakoitzean, lagunek lar ameslaria nintzela esaten zidaten. Esartetik egitera pasatzeko, zerbait gehiago behar da. Sarritan, nagitasunagatik ez dira gauzak aurrera ateratzen. Une batean, gaixotasun bat diagnostikatu zidaten: barrabiletako minbizia. Kolpe gogorra izan zen. Ez dut erretzen, edan ere gutxi, kirola egiten dut... Zergatik

“

Lagunei esan nien: Garaiko ziklo-krosa martxan ikusi gura dut, eta gero, datorrela datorrena”

■

niri? Horrelakoak pentsatzen dituzu. Hasieran ez nekien zer motatako tumorea zen. Probak egin behar zizkidaten. Gauzak horrela, laguneri zer neukan kontatu eta esan nien: "Begira, ez dakit zer etorriko den hemendik aurrera, baina nik

Garaiko ziklo-krosa martxan ikusi gura dut. Behintzat hori ikusi gura dut, eta gero, datorrela datorrena". Lagunen babes osoa jaso nuen. Inflexio puntu bat izan zen ekimena aurrera eramateko.

Ziklo-kros proba aurrera doan moduan, esan dezakegu gaixotasuna atzean geratu dela?

Oraingoz, bai. Abenduan proba gehiago egin behar ditud, baina ondo sentitzen naiz. Sustoren bat ere izan dut. Izan ere, edozer gauza gertatzen dela ere, gaixotasuna berriro datorrela pentsatzen duzu, baina gero esaten dizute ez dela ezer, eta berriro ondo. Baina egun guztian buruan darabilzu, eta lehen hainbeste baloratzen ez zenituen gauzak baloratzen hasten zara: maite dituzun horiekin denbora gehiago pasatzea eta antzerakoak.

Daramazun bibotea ez da kasualitatea.

Ez, ba! Movember mugimenduagatik da. Prostata eta barrabiletako minbiziaren inguruko kontzientziazioan sakontzea du helburu mugimenduak. Urtero azaroan bibotea uztea gaia gizarteratzeko modua da. Prebentzioan egiten du indarra. Bizikletan nenbilenean, igartzen nuen zerbait, baina ibili ez banintz, ez nuen sumatuko behar bada.

Gaixotasuna garaiz detektatzea garrantzitsua da.

Hori da, eta arlo horretan kontzientziazio lana egin behar da. Ziklo-kros egunean, txozna bat jarri eta bertan itsulapiko bat ipiniko dugu. Ateratzen dugunaren erdia Movember fundaziora joango da, eta beste erdia Acambi elkartera. Emakumeen bularretako minbiziaren inguruan lan egiten duen elkarte da Acambi.

Orain urte batzuk triatloi proba bat antolatu zenuten, ondoren mendi lasterketa bat ere bai, eta orain ziklo-krosa. Zenbat saltsatan sartzen zareten?

Eta horrela jarraitu dezagula! Garain ez dago komertziorik beste herri batzuetan lez, eta horrelako herriei bizia eman behar zaie, beste la-lo-hiri bihurtzen dira.

Zapatuko ziklo-kros proban Bizkaiko txapelkunak erabakiko dira. Zelan lortu duzue estreinako urtean Bizkaiko txapelketa ekartzea?

Bizkaiko federazioko presidentegaz berba egin nuen, Agus Ruizegaz. Zirkuitua ikustera etorri zen, eta ikusi zuenean esan zidan: "Hau Bizkaiko txapelketa izan behar da!". Lehenengo aldia denez, guri bultzakada bat emateko modua ere badela esango nuke.

Zeintzuk berezitasun ditu Garaiko zirkuituak?

“

Beste zirkuituekin alderatuta, apur bat desberdina da; arboladietan zehar doazen tarreak, belardi zabalak...

gaz. Asko lagundu digu.

Zer aurreratutako dezakezu parte-hartzaileei buruz?

Maila guztiak kontuan hartuta, 300 bat partaide batuko dira. Lagun bati eskerrak, Astana taldeko lau ziklista etorriko dira: Jon eta Gorka Izagirre, Omar Fraile eta Luis Leon Sanchez. Caja Rural taldeko Jonathan Lastra ere badator. Denak errepideko txirrindulariak dira eta ziklo-krosa prestakuntza moduan erabiltzen dute neguan. Master mailako lehenengo probak 09:30ean hasiko dira. Ondoren, kadeteen eta juniorren txanda izango da. Emakumeen proba 11:15ean hasiko da, eta gizonena 12:30ean.

Zuk zeuk parte hartuko duzu?

Ez, aurtan ez dut lizentziarik atera. Egon naiz ateratzekotan, baina denbora asko daramat bizikleta ikutu barik. Bizikletan ibiltzeko neukan denbora beste gauza batzuetarako erabili dut: batzarrak egiteko, babesleak bilatzeko, muntaketan laguntzeko... Ziklo-kros probak laburrak izaten dira, baina oso intentsoak, eta entrenatuta egon behar duzu. Gainera, antolaketa taldean egonda, uste dut egun horretan gehiago disfrutatuko dudala kanpotik.

Sasikoak eta Elorrioko Parra Tabernak liderren arteko derbia jokatuko dute

Durangoko eta Elorrioko taldeak dira Hirugarren Mailan orain arte partidurik galdu ez duten talde bakarrak. Saillapenean lehenengo eta bigarren daude, puntu berdinekin



Durangoko Sasikoa taldea aurtengo partidu batean.

ARETO FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Areto futbolean, Durangoko Sasikoak eta Elorrioko Parra Tabernak Hirugarren Mailako oilarren arteko derbia jokatuko dute domekan, 12:00etan, Landako Kiroldgian. Zazpi jardunaldi joan direnean,

durangarrak lider daude eta elorriarrak bigarren, puntuetara berdintuta. Maila horretan oraindino partidurik galdu ez duten talde bakarrak dira, seina garaipen eta berdinketa banagaz.

Derbi "intentsoa" itxaroten du Aitor Daroca Sasikoako entrenatzaileak: "Hemen entrenatzaile daramatzadan bost urteetan intentsoak izan dira beti derbiak, eta aurten lehenengo eta bigarren egoteak areagotu egiten du ikusmina", azaldu du. Zaleei "harmailak betetzeko" deia egin die.

Hitzarmena Landakogaz

Ligako bolada onari eusteaz gainera, Sasikoak beste helburu nagusi bat du aurtengo denboraldian: harrobia indartzea. Ildo horretatik, Landako eskolagaz lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, eta bertan benjamin mailako talde bi sortu dituzte. "Gazteak dira klubaren etorkizuna, eta ondo zaindu gura ditugu", aipatu du Darocak.

Hurrengo asteburuan, Olazar txapelketako final-laurden bi jokatuko dituzte

PILOTA • J.D.

Hurrengo astean, Olazar txapelketako final-laurdenak amaituko dituzte Zaldibarren. Eguenean, 21:30ean, Gutierrez eta Fernandez errioxarrek neurtuko dituzte indarrak lau eta erdian, eta Labaka-Elizegi eta Etxebarria-Santxo bikoteek binaka.

Azaroaren 30ean, 18:00etan, final-laurdenetako azken jardunaldiari dagozkion partidua jokatuko dituzte. Kaiolan, Antzoren eta Alberdiren artean dago finalerdietarako txartela. Binakako partidua Exposito-Lizeaga eta Karregal-Madariaga bikoteen artekoa izango da.

Oraingoan, Olaetxea lau eta erdian eta Zubizarreta-Elizegi binaka daude finalerdietarako sailkatuta.

Jokaldia

Kepa Arroitauregi
Egaña
Pilota teknikaria



Erabakiak

Azken egunotan pilotazalea bi ekitaldi garrantzitsuri begira egon da; lau eta erdiko finala eta binakakoaren aurkezpena izan ditugu begiz jota.

Lehenak pozik utzi du pilotazalea. Gehiengoa bai behintzat. Ni neu lehia on bat ikusitakoaren sentsazioaz altxatu nintzen besaultik. Ezkurdiak, bikain jokatuta, Altuna favoritoa menderatzea merezita lortu zuenaren irudipenez. Gero, amezkarraren hitzek tristetu ninduten. Ez zuen seguruenik garailearen meritua gutxietsi nahiko, baina bere partidua 'kaskartzat' jotzea ez zait egokia iruditzen. "Erabaki oker batzuk" hartu zituela eta ez zegoela gustura zioen, are gehiago, inoiz baino okerrago sentitzen zela. Erabaki okerra arbizuerra eremu txikira eraman beharrean luzera jotzea izan zen, baina eginiko partidua ez zen hain eskasa izan. Hori bai, hartutako erabakia agian bai. Gaizki sentitzeari logikoa irizten diot final bat galdu ostean, baina hortik bere hitzetara...

Eta Altunaren erabaki okerratik binakakoari so jarrita, Asperen 'erabakiak' sortu duen nahigabera pasatuko gara, nahigabea bizkaitarrentzat. Jaka, Iribarria eta Danel Elezkanoren artean zeuden Altunari eta Ezkurdiari lagundu beharreko beste bi aurrelarien postuak, eta gipuzkoarren aldera egin du enpresa 'gipuzkoarrak'. Bizkaitarra eta txapelduna kanpoan. "Kirol irizpideek" utzi dute Danel kanpoan. Hori Aspek gidiaren argudioa, baina hori ez da egia guztia nire aburuz.

Beste erabaki polemiko bat, Urruti atzera bidaltzean. Bere mesederako, kalterako, beharri zanez... Aretxabaleta eta Larunberri ateak itxiaz. Gustu guztietarako erabakiak, alegia.

Asteko kirolaria

"Durangaldean ez dago rallyetarako afizio handirik, eta hori ez da positiboa eskualderako"

Alain Peña kopilotu durangarra Suzuki kopa lehiatzen dabil Unai De la Dehesagaz batera

Rally lasterketarako kopilotua da Alain Peña (Durango, 1996). Espainiako Junior Mailako Txapelketan irabazi egin zuen Unai De la Dehesagaz batera. Horrez gainera, junior mailako lasterketa garrantzitsuetan parte hartzen dabil durangarra.

Gura zenuten moduan doa denboraldia?

Espainiako txapeldunak izateaz gainera, orain Suzuki Kopa gabil-tza korritzen, esku artean dugun lasterketarik garrantzitsuenetarikoa. Oso lasterketa interesgarria da gazteentzat. Apurka hasi ginen eta orain lehenengo postuetan lehiatzen gabil-tza lasterketetan.

Asteburu honetan azkenengo lasterketa daukagu, Madrilén, eta irabaztea itxaroten dugu.

Unai De la Dehesa zu baino gazteagoa da. Zelakoa da zure lana beragaz?

21 urte dauzka. Bere bigarren urtea da maila honetan, eta batzuetan lasaitu egin behar duzu, baina orokorrean gustura eramaten dut. Beste batzuetan, psikologo lanak ere egin behar izaten ditut.

Urte askotako afizioa da rallyena?

Txikitatik gustatu izan zait motorraren mundua; hasieran motokros munduan ibili nintzen, baina gero utzi egin nuen. Denbora batera, Durangoko lagun batez gaur han eta hemen begiratzen hasi

nintzen, beti ibili izan garen moduan. Laguna lehiatzen zebilen ordurako, eta lasterrera batu egin ginen. Horrela hasi nintzen rally mundu honetan.

Durangaldean badago aukerarik mundu horretan hasteko?

Gaur egun ez dago afizio handirik Durangaldean. Momentu honetan, Durangalde Racing Elkarteko jendeak ez du atzetik jarraituko dion belaunaldirik, eta hori ez da positiboa eskualderako. Baina mundu honetan hasi gura duena nigaz hartu-emanetan ipini daiteke, eta ahal dudana neurrian lagunduko diot. Izan ere, lanean gabil-tza datorren urtean kopilotu tailer bat egiteko. Aurrera atera-



ALAIN PEÑA

Durango, Kopilotua

tzea itxaroten dut.

Denboraldia azken txanpan sartuta, zeintzuk dira zure hurrengo zidak?

Madrilera joan naiz Espainiako azken asfalto proba egitera, eta datorren astean lurreko azken lasterketa daukat, hori ere Madrilén. Katalunian ere badaukat beste lasterketa bat, baina oraindino ez dakit ezer. Aurten 17 lasterketa egin ditut, eta etxean egoteko tar-te bat egin gura dut, eta hurrengo urteko proiektu berriak prestatu.

DURANGALDEAN OSASUNAREKIN,
ZERIKUSIA DUEN NEGOZIORIK BADUZU,
JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

informazio gehiago 946 217 902 telefono zenbakian

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//AUKERA

IURRETA: 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Bizitza sartzeko moduan. Eguzkitsua. ALOKAIUAN erosteko aukeragaz. C.E.E= F **115.000€**

IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. **139.000€**

IURRETA: 3 logela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. ESTREINATZEKO. **97.500€**

ZALDIBAR: 3 logela. Garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatua. **98.000€.**

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Faustebekoa. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. Babes Ofizialeko Etxebizitza. **183.100€**

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 110 m². 2 komun, sukaldea, egongela. Oso egokia kontsultarako, akademiatarako edo etxebizitzetarako. **216.000€**

BERRIZ: Bidegain. 3 logela, 2 komun, eskegitokia, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Ganbara eta garajea. **220.000€**

MATIENA: 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. **167.000€**

DURANGO: Berriak. Estreinatze. 1,2,3 eta 4 logelakoak. Ganbara. Garaje 2. C.E.E:D **175.000€**-tik aurrera. (BEZa barne)

ABADIÑO: Familia bakarra. 484m². 1.000 m²-ko lursaila eraikitze aukeragaz. **325.000€.**

DURANGO: Sta. Ana. Promozio berria. 1,2 eta 3 logelakoak. Trastelekua aukeran. **170.000€**-tik aurrera.

MONTEBIDEO: 135 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela-jangela. 2 terraza. Ganbara. Garaje itxia. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E:E

BERRIAK ESTREINATZEKO: 2 eta 3 logelakoak. 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Ganbara. Garaje itxia. **130.000€**-tik aurrera.

KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **186.000€.**

ARTEKALE: Erdigunean. 83 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Igogailua. **175.000€.**

GAZTELUA: Lursaila. 26.044 m². 6 partzelatan banatua. Fruta-arbolak ditu (600 sagarrondo, zenbait partzelatan).

MATIENA: Laubideta. 3 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ikuspegiakin. Eguzkitsua.

J.A. AGUIRRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **250.000€.**

ERRETENTXU: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. **230.000€** Alokairuan erosteko aukeragaz.

SAN INAZIO: 100 m². 3 logela, 2 komun, horma-armairuekin, sukalde handia eta egongela handia. Terraza. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. ALOKAIUAN, EROSTEO AUKERAGAZ. **256.000€.**

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

MENDIZABAL: Itxia. **24.000€**-tik aurrera.

TABIRA: 30 m²-ko garajea. Argiagaz eta uragaz. **35.000€.**

ASKATASUN ETORBIDEA: 8.000€-tik aurrera garajeak.

ABADIÑO: 160 m². Egokitua. Dena erakusleihoa 2 kaletan. **175.000€**

ABADIÑO: 75m². **75.000€.**

ZALDIBAR: Salgai. Ganbara zabala. Bulegorako edo estudiorako egokia. 24-35m². Ekonomikoa.

F.J. de ZUMARRAGA: Aukera. 114m². SALMENTA. **150.000€.** Negoziazarria.

//ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000 €-tik hasita.

DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa.

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

BERRIZ: Elizondo etxaldea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

IURRETA Maspe kalea: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritzalurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitze baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA: Txale bifamiliarra eraikitze lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000 €

ATXONDO: Baseri ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Baseri bifamiliarra. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

BERRIZ: Baseri ederra, Murgoitiko zonaldean. 3 hektareako lursaila.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO
40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN
Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO
3 logela
83 m²
MURUETA TORRE: 83 m². Bizitza sartzeko moduan. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
290.000€ C.E.E:E

DURANGO
3 logela
2 komun
89,75 m²
DURANGO: Larrasoloeta. Erreforma estreinatze. Egongela, sukalde jantzia estreinatze eta berogailua. Ganbara.
248.000€ C.E.E:E

BERRIZ
3 logela
89 m²
BERRIZ: 89 m². 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Guztiz jantzita.
232.000€ C.E.E:E

ABADIÑO
2 logela
63,57 m²
ABADIÑO: 63,57 m². 2 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Garajea eta trasteleku handia. 96 m²-ko terraza.
214.500€ C.E.E:D

DURANGO
2 logela
18 m² garaje itxia aukeran
GOIENKALE: Egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Ezin hobea. Fatxada, patioa eta teilatua egin berriak. Garajerik gabe 185.000 €
Garaje eta guzti 214.900€

DURANGO
2 logela
60 m²
ANTSO ESTEGIZ: 60 m². 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Igogailua desgaituentzat. Ganbara.
180.000€ C.E.E:E

//DURANGO

ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.

IBAIZABAL: logela, sukalde-egongela eta komuna. **170.000€** / E.E.Z= E

KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. **160.000€**/E.E.Z= G

KURUTZIAGA: 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000€** / E.E.Z=F

MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. **230.000€.** / E.E.Z=F

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600m²-ko lurzorua. **640.000€**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000€** / E.E.Z=E

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576€ / ORAIN **278.000€**/E.E.Z=E

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **120.000€** / E.E.Z=F

BILBO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela-jangela eta 3 komun. Balkoia. LEHEN 195.000€ / ORAIN **160.000€** / E.E.E=E

ELIZONDO AUZO: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna. Balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. LEHEN 142.000€ / ORAIN **134.000€** E.E.Z=G

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000€ / ORAIN **85.000€** E.E.Z=E

//ERROTATXO KALEA

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000€** / E.E.Z=G

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000€** / E.E.Z=E

SARRIA AUZO: Baserria 4.000 m²-ko lur sailagaz. **400.000€** / E.E.Z=E

//IURRETA

FAUSTE: Baserria lurzorugaz, **220.000€** / E.E.Z=G

//MATIENA
TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.ZCF

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E=F

OLETA AUZO: banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000€** / E.E.Z=E

//ELORRIO

BERRIOTXOA: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E

//BERRIAK
//MATIENA
ELORRIAGAZAR: 2 logela, sukaldea, egongela eta trastelekua. **65.000€** / E.E.Z=G



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonora.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 m²-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

ETXEBIZITZAK EROSI

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Elorrio. Atiko polit alokatzen da Elorrioren...50 m²...igogailua dauka. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Abadiño. Pisu hartuko nuke alokairuan. Tel.: 699 17 40 23

Durango. Bi gazte langile alokatzeko pisu bila gabiltza Durangon. Baditugu altzariak, beraz, nahiago dugu etxea erdi hutsik egotea. 11 urte dituen eta 5 kiloko txakur eme txiki bat daukagu, etxean egotera ohituta dagoena. Tel.: 615 781 068.

OPORRETAO ETXEBIZITZAK PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Atxondo. Arrazolan (Atxondo) baserri batean bizi garen 3 neska feminista etxea partekatzen pertsona baten bila gabiltza. Tel.: 650 90 14 91

LURSAILAK

Terrenoa salgai lurretan. Terrenoa salgai lurretan, Bakixan, Oromiño bidean. 16000m². Tel.: 636 22 07 96

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handiduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

Nagusiak zaintzeko. Ni Maite naiz, San Fauston bizi naz, Durangon. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta sukalde lanetan. Goizez eta arratsalde lan egin dezaket. 3 urtez lan egin dut zaharren egoitza batean. Titulu bat daukat. Tel.: 673 68 97 69

Haurrak zaindu. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Etxeko lanekin laguntzeko arazorik gabe. Urteetako esperientzia. Deitu lasai! Tel.: 688 64 06 04

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa teknikan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo Whatsapp idatzi Tel: 688645983 zenbakira.

LAN ESKAINTZAK

ETXKO LANAK

Umeak zaindu eta etxekolanak egin. 59 urteko andre euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest (Durangaldea) Urte askotako esperientzia eta erreferentziak. Arantza Tel.: 636 44 82 11

PERTSONAK ZAINDU

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago,

Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali Tel.: 602 89 50 18 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile (interna) gisa lan bila.

Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaindu, etxeko garbiketa lanak, arropa lisaketa, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: 644558390

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: Tel: 643 72 71 98 zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko.

Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsona zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak lanaldi osoa... Tel: 658 03 08 36

PERTSONA HELDUA ZAINTEKO PERTSONA BEHAR DA.

Ataunen baserri batean pertsona heldu bat zaintzeko lanaldi erdirako pertsona bat behar da, berehala hasteko. Kotxe propioa izatea baldintza ezinbestekoa da. Tel.: 653 74 49 88

Umeak zaintzeko eta klase partikularrak emateko prest.. 0-12

urte bitarteko umeak zaintzeko edota klase partikularrak emateko prest nagoen 24 urteko neska bat naiz. Haur Hezkuntzako unibertsitate gradua bukatzen ari naiz eta esperientzia handia daukat mundu honetan. Elorrio eta inguruetan lan egiteko prest nago. Interesatuak nirekin kontaktuan jarri Whatsapp bat idatziz edo deituz Tel.: 692 71 66 46 telefono zenbakira.

IRAKASKUNTZA

IRAKASLE BEHARRA. Eskolaz kanpoko laguntza emateko pertsona bat behar dugu gure akademian. Ingelesa ondo jakitea ere baloratuko da. Tel.: 686 81 02 03

Portugeseko klase partikularrak. Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Hizkuntzak praktikatzeko berbalagun bila nabil. Ingelesa eta frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz. Tel.: 617 37 89 33

Animaliak

Txakurrak opari. Bi mastin eme (4 urte) eta border Collie arra (4 urte) opari. Interesatuak deitu hurrengo Tel.: 679 23 71 29 zenbakira.

2020
Durangaldeko egutegia
Lekuan lekuko egutegia
Ohiko saltokietan
salgai



ABADIÑO	Petite / Hezgarri / Abarkateruena
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Fonda
DURANGO	Hitz Liburudenda / Arkarazo
ELORRIO	Ilargi
GARAI	Herriko Taberna
IURRETA	Urki
IZURTZA	Herriko Taberna
MALLABIA	Bastida Taberna
MAÑARIA	Bizkarra
OTXANDIO	Danoena Taberna
ZALDIBAR	Imendia
ZORNOTZA	Ayerdi paper-denda

Botikak

BARIKUA, 22 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 23 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurrenondo
22. - **DURANGO**

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente
Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 24 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 25 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 26 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 27
09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 28 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Gure etxeko printzesa **Sofiak** 7 urte egin zituen atzo. Zorionak eta espero dugu oso ondo pasatu izana. Musu pilo bat aitaren eta amaren partez! Gure bihotza!



Azaroaren 20an **Rakelek** urteak egin zituen. Zorionak Eider, Inhar eta Ibonen partez. Musu handi bat eta ondo pasa zure egunean.



Zorionak, **Elixabete**, zure zortzi-garren urtegunean etxeko guztien partez. Ondo pasa eta gozatu zure eguna, familiagaz eta lagunekin. Besarkada eta musu handi bat.



Zorionak, **Unax!** Egun polit bat euki zure urtegunean! Etxeko guztien partez, musu erraldoi bat.



Zorionak, **Aner!** Gaur 4 urte egiten dituzu. Ondo pasau familia guztiaren partez eta, batez ere, Aimarren partez. Zorionak, txapeldun!



Zorionak gure neskatxo politari, aitaren eta amamaren partez. Muxu handi bat.



Yosu Echevarria Jainaga, zorionak etxekoan partez, eta egun ona pasa ezazu.

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 11° / 8° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 17° / 11° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 18° / 14° ☁️

DOMEKA 🌧️ 12° / 6° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 19° / 12° ☁️

EGUENA 🌧️ 16° / 10° ☁️

katerin
ardoak
iñaki
uribe

25^{urte}
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delicatessena - Ardotezia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com




Ainarra Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

BODEGUILLA



TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

“Elorriora etorri, lagunekin egon eta gustuko gauzak egin... horixe da bizitzea niretzat”

Rafa Beitia hegazkin komandantea da AEBetan, eta urtero etortzen da Elorriora, etxera. Opor egunak amaituta, joan zen astean bueltatu zen Washingtonera. Hegazkina hartu bezperan egin zuen hitzordua ANBOTOK beragaz

Rafa Beitia Bedia (Elorrio, 1957)

• United Airlines konpainiako komandantea

Berba bitan

Hegaldi bat

Washington-Bilbao

Garraibide bat

Taxia, Bilbotik Elorriora gure baserrira etortzeko

Liburu bat

Abiazioari buruzko edozein

Hiri edo herri bat

Elorrio

Zaletasun bat

Hegan egitea eta baserrira

Hegazkin bat

Boing 727

Gehien amorratzen zaituena...

Pertsona den moduan ez errespetatzea

Gehien gustatzen zaizuna...

Bihotzez jardutea

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Rafa Beitiak 37 urte egin ditu hegaldi komertzialetan. Azken 30 urteak AEBetako United Airlines konpainian. Hegazkineko komandantea da eta Washingtonen du aire-basea. Floridan du bizilekua, baina etxea Elorriori, Olabazar baserrian. Amerikan, Asian, Pazifikoko irletan, Europan eta Australian ibili da, besteak beste.

Elorriotik AEBetara joan zinen umetako ametsa betetzera.

Bai. 20 urteagaz joan nintzen AEBetara. Beti amestu dut hegan egitea, besterik ez bada kometa bategaz. Txoriei begira ematen nuen denbora, edo hegazkinei, zeruan desagertzzen ziren artean. Kometak eta aeromodeloak ere egiten nituen 14 urteagaz, eta, behin, Madriletik Kanaria uharteretarako hegaldia egiten zuen emakume baten artikulua irakurri nuen. AEBetan abiazio kontua izugarria zela zioen, eskola asko zeudela, eta Europan baino merkeago.

Horrek zabaldu zizun bidea?

Anaia pilotari zebilen AEBetan, eta pilotan jokatu eta kontratu bat lotzea pentsatu nuen. 4-5 urte egin nituen pilotari profesional Floridan. Lortutako diruagaz abiazio esko-

lara joan nintzen. Egunez eskolan eta gaez frontoian jarduten nuen. Ez zen erraza izan.

Umetan hegazkinak pilotatzen ikusten zenuen zeure burua?

Fumigatzen lan egin gura nuen, abionetaz. Baina horretan ibilitakoek arriskutsua zela esan zidaten, erabilitako produktu kimikoak txarrak zirela. Azkenean, gaez zama eramaten hasi nintzen, hegazkin handietan.

22 urte daramatzazu komandante. Ardura handia da hori.

Bai. Onerako eta txarrerako. Gehienetan ondo doa dena, baina zerbaitek txarto ir-

nez gero... Hegaldiaren informazio guztia jasota egon behar da, horrek du balioa.

Airean zerk ematen du errespeturik gehien?

Eguraldi eskasak, orain dena oso kontrolatuta egon arren. Baina ardurarik handiena aireratzek sortzen du. Orduan du pisurik gehien hegazkinak, 0tik irtete abiadurara pasatu behar dugu, eta motor batean arazoren bat sortzen bada ere ezin da gelditu. Horren antzera, lur hartzeak.

Baduzu astirik lekuren batean lasai egoteko?

Hoteletik hotelera ibiltzea ez da erraza. Gogorra egiten zait. Herrialde batetik bestera ibiltzeak asko nekatzen du. Bestelakoa da oporretan, lantzean behin batera edo bestera joatea. Guk etengabe egiten dugu hori. Orduak aldatuta gabiltza beti, eta batzuetan non gauden ere ez dakigu. Nonbaiten geldi egotea, horiek dira oporrak niretzat.

Non duzu etxea?

Elorriori. Gogoia eta burua baserrian izan ditut beti. Virginian dut bizileku bat, eta beste bat Floridan, anaia-gaz. Baina inoiz ere ez naiz hango sentitu. Elorriora etorri, lagunekin egon eta gustuko gauzak egin... horixe da bizitzea niretzat. Askotan esan diet lagunei mundu zabalean ibili naizela, baina bizkor bizi izan naizela. Batetik bestera, beti arineketan, orduari begira. Ez dut disfrutatu neure gustuko gauzekin.

Erretiroa hartzen duzunerako baduzu amets berri bat

Baserrira etorri eta okelerako behi batzuk ipini, baina gozamenerako. Gauza erraz eta gustukoez disfrutatzea.

Lau-hortza

Mikel Uriguena Ruiz Irakaslea



GUTAKO EDONORI

Enekok, enegarrenez azken boladan, ezin du lorik egin. Lau ordu baino ez zaizkio geratzen iratzargailuak jo arte. Azkenean loak hartu du, baina, goizean, egoerak txarrera egin ez dezan, medikuarekin hitzordua hartzen saiatu da. Izan ere, aurretik ere bizi izan ditu antsietate boladak eta ondo ezagutzen ditu sintomak. Osakidetzaren webgunean sartzean aukeran duen lehen eguna 3 aste geroago dela ikusi du. Ezin du sinistu. 21 egun zain eman beharko ote ditu? Ala akats informatikoren bat izango da?

Egun osoa urduri igaro eta gero osasun zentrora joan da azalpen eske, eta inolako akatsik ez dagoela onartu behar izan dio sarrerako langileak. Bere medikua eta beste batzuk egon ez arren, ordezkorik bidali ez dutenez, gainontzekoak ari dira ez daudenen gaixoak artatzen. Aukera bi eman dizkio orduan: astebete geroago beste mediku batekin egotea ala larrialdietara joatea.

Larrialdietako itxarongelan zain dagoela, arrebaren deia jaso du. Semearen sukarra dela-eta Gurutzetan daudela esan dio. Ospitale hitzak benetan larritu du Eneko, baina azalpena entzutean ondo ulertu du: ordu batetik aurrera, eta gaixo dagoen haur batekin, Barakaldora joatea besterik ez dago.

Deia bukatzean Osakidetzaren kartela ikusi du parean. Gure esku ditugun osasun baliabideak gorapatzen dituen, hain justu. “Erabili osasun zerbitzuak arduraz” da mezu nagusia. Barre egin arren amorrua sentitu du. Eneko gutako edonor izan daiteke eta horrelakoak Durangon gertatzen ari dira.



Ekonomia Ituna

zerikusia handia... nirekin!

Eta euskal herritar guztiekin; izan ere, haren bidez, erantzukizunez, zorrotzaz eta sentsibilitatez kudea ditzakegu-eta euskal baliabide eta zerbitzu publikoak.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMIA